



ataria

Nepalgo emakumeen egoera erakustea xede

Gizartea

*Herritarren parte hartzea
oinarri hartuta hilerria
margotu dute, Anoetan*

Kultura

*Urrez jantzita eta inoizko
berezien dator 50. Tolosako
Abesbatza Lehiaketa*

2018-10-26

947. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus



saridunak

Atarikideentzat **sarrera parea** dugu

**GBC - HERBALIFE
GRAN CANARIA**

• Andres Vitoria (Anoeta)

Urriaren 28, igandea 17:00etan
Donostiako Ilunben

Ataria jarriko da harremanetan.



**Hemen zure
iragarkia joan
daiteke**

publi@ataria.eus

661 67 88 18



KIROL GIDA
TOLOSALDEA 2018-2019

ATARIKIDEENTZAT
ESKURAGARRI
ERREDAKZIOAN



harpidedun izateak badu saria
saridunak

1 TOPIC

TOLOSALDEKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILO ZENTROA
Bi lagunentzako bina sarrera

www.topictolosa.com
Euskal Herria plaza – Tolosa
943 650414

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

- Aitziber Urruzola (Alkiza)
- Mila Otamendi (Tolosa)



2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24 – DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04 www.eltxuri.com
Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

- Iñaki Etxeberria (Tolosa)
- Karlos Urdanpilleta (Tolosa)



3 CASA JULIAN JATETXEA

Bi lagunentzako asteburuko afaria

Santa Klara, 6 - TOLOSA
943 671417
www.casajuliandetolosa.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.

- M^a Jesus Aranzabe (Tolosa)



Euskaraz ari garelakoan

Zehar begiratu botatzen diogu euskara jakinda gaztelaniaz barra-barra aritzen denari, jakin badakigun arren erdararen oihartzuna dariola gure euskarari. Zenbaitetan halabeharrez eta gehiegitan inertzia, euskara gaztelaniaren ur handitan nahasten denean, hizkuntza aldatzeko joera izaten dugu.

Erabat gaztelaniaz mintza zaigun lagunari edo bizitza osoan euskaraz hitz egin ez digun bizilagunari uste baino esaldi gehiago esaten dizkiogu gaztelaniaz. Hizkuntzari bere grazia atera ordez ere, maiz hizkuntza aldatzea errazagoa egiten zaigu. Aitor-tu dezagun aurreiritzien erruz lehen hitza ez dugula beti euskaraz egiten. Abiadura gure ama-hizkuntzan esateko gai ez garen honetan, aldamenekoari begira gaude euskararen erabilaren datuen zama besteei dutelakoan.

Orain indartsu eta gogoz goaz Euskaraldiaren zurrun-

bilora. Gure burua putzura lasai botatzen dugu, igeri badakigulakoan eta ura kontrako eztairitik irensten dugu. Ariketa erraza jarri digutelakoan bi aldiz pentsatu gabe izena eman du ahobizi ugarik, ohartu gabe Euskaraldia ez dela euskararen aldeko aldarri soila.

Ariketa soziala izango da, baina norbere ziborrari begira egin beharrekoa.

Kendu diezaiegun zama besteei eta jar gaitzen gure buruari begira, azaroaren 23tik aurrera abagune aparta izango dugu eta horretarako. Euskaraz hitz egiten ez digun horrekin zein jarrera hartzen dugun ikusteko balioko digu eta gure egunerokotasunean egoera berriak sortuko dira. Agian, zorionez, espero ez genituen sorpresak hartuko ditugu. Ariketa egin behar dugu, esfortzua eskatuko digu eta, zenbait unetan, soinean ipini dugun txapari

begiratu eta bi aldiz pentsatu beharko dugu.

Konturatuko gara norekin eta zenbatetan erortzen garen gaztelaniaren atzaparretan, baina ederra izango da zurrunbilotik gu eraberritu bat ateratzea. Bizipen pertsonal ugariren kontzientzia ehunduko du eta gu euskaldun indartsu baten iturburu izan liteke. Egin dezagun bizitza osorako izan behar lukeenaren beroketa. Mereziko du. Ahobizi, irribizi, belarriak eta zentzumenak prest. Badator Euskaraldia.



IZARNE OLANO
KALAKARIA

Ariketa erraza jarri digutelakoan bi aldiz pentsatu gabe izena eman du ahobizi ugarik, ohartu gabe Euskaraldia ez dela euskararen aldeko aldarri soila

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNE:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

Tolosaldeko gizarte eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Inigo Terradillos



Horma irudiaren panoramikan, erdi-erdian kokatzen den zubia ikusi daiteke. J.M.

Artea, hil artean, bizi

Anoetako hilerrian murala margotu dute herritarren parte hartzea oinarri hartuta, inguru horri beste itxura bat emanda

Jon Miranda

Ez da hilerria herriko tokirik alaia-
na, baina zendutakoek deskan-
tsua hartzen duten tokiari bizitasuna
eman nahi izan dio Anoetako Udalak.
«Orientazioak hegoaldera ematen du,
pinuz inguratuta zegoen hilerria,
eguzkia sartzen ez zela, goroldioa eta
hezetasuna zen nagusi», esan du Pello
Estanga alkateak. Ingurunea txukun-
du eta mural bat margotu dute hilerri-
ko atzealdeko paretan. «Ez da azpiegi-
tura handirik behar, pintzelada bat-
zuk nahikoak dira jendearen barrura
iristeko, eta hori gure esku dagoen bi-
tartearen, egin egingo dugu».

Ez da lehen aldia Anoetan herriko
pareta bat margotzen dutela. San Joan
kalekoa egin zuten lehenengo eta iaz,
ikastolako DBHko ikasleekin batera

kiroldegiko horma bat pintatu zuten.
«Gazteek erabaki zuten zer irudikatu
nahi zuten horma irudian». Ikertze
kultur elkarteak koordinatzen duen
Bizikidetzarako horma irudiak pro-
grama baliatu dute lanketa egiteko eta
Eusko Jaurlaritzako diru laguntza ba-
tekin burutu ahal izan dute hirugarren
lan hau ere. Praktika artistiko baten
berezko balioak ezagutzea da progra-
maren helburua, beraz, irudimena,
sormena, sentsibiltatea, pazientzia
eta antolakuntza landu ahal izan di-
tuzte ekimenean parte hartu dutenek.

Baina, batez ere, parte hartzea du oi-
narri proiektuak. «Herritarrek beraiek
erabaki dute pareta horretan zer mar-
gotu», esan du Estangak. Ikertze kul-
tur elkarteak, Arantxa Orbegoza eta
Nerea Linazasoro artistak jarri ditu
prozesua gidatu eta dinamizatzen. Le-
henengo bi bileretan ideiak jaso eta ze-
haztu zituzten. Herritar askok hartu
zuen parte eta azaldu ez zirenek, gai-
nera, sare sozialen bitartez bere ekar-
pena egiteko aukera izan zuten.

Bakea transmititzen duen irudia

Udaletxean egindako lehen bilera ho-
rietan oinarri batzuk adostu zituztela
azaldu du Orbegozok: «Hemen kolore
askotako jendea dago, Anoetan sines-
men ugari du jendeak, eta beraz, ikur
erlijiosorik ez jartzea adostu genuen
aurrena. Ondoren jendeak, naturare-
kin lotutako irudi bat jartzea aipatu
zuen, lurrarekin lotuko zuena; Euskal
Herriarekin lotutako sinboloak eta ko-
lore suabeak ere aipatu zituzten. Lasai
egoteko eta negarra egiteko toki bat da
hilerria, azken batean, eta horretarako
giro atsegina sortzea zen helburua».

Idea horiek guztiak zirriborro bate-
ra eramán zituen Tolosako artistak.
«Hau ez da nik pintatuko nukeen mu-
rala, niri enkargatuz gero, bestelakoa
izango zatekeen. Lan honetan jende
askoren nahia dago eta horrek ematen
dio balioa horma irudiari». Azkeneko
hiru asteak margotzen eman dituzte.
25 metroko luzera duen paretan irudi-
katu dira herritarrek proposatutako-
ak. Erdi-erdian zubi bat jarri dute. «Bi-






Artistek hilerriko hormekin elkar eragiteko proposamena luzatu diete herritarrei. J.M.

zitzaren bidaia irudikatzen du. Jakina da zubiaren amaieran zer dagoen, baina hara iritsi aurretik, norberak erabakitzen du zein bidaia egin. Horretarako hanka arrasto batzuk jarri ditugu lurrean». Zubitik eskuinaldera, errekarri batzuk jarri dituzte bata bestearen gainean, «bizitzako oreka irudikatuz, txinatar lorategi bat balitz bezala». Ezkerraldera berriz, Euskal Herriarekin lotuz, ia desagertzear dauden metak jarri dituzte. Albo batean zuhaitz baten adarrean, Anoetako ikurra den kukua ageri da eta horma irudi osoan zehar, txoriak, alde batera zein bestera. Paretaren alde banatan, 3x3 metroko bi hormetan, lauburu bat eta irudi zelta bat jarri dituzte eta hilerriko sarreraren eguzki lore bat, «espiritu txarrek uxatzeko garai batean erabiltzen zen sinboloa».

Orbegozok eta Linazasorok gidatu dituzte margotze lanak azken asteetan eta herritarrak gerturatu dira laguntzera edo inguruneak txukundu eta garbitzera. «Jendeak oso kontentu bu-

katzen du, normalean ez baitago lan hauetara ohituta, eta horrela, ofizioa ere ikasten dute. Bukaeran euren sentitzen dute horma irudia». Behin lanak amaituta, gerturatzen diren herritarrak argazkiak egitera eta jolastera gonbidatu ditu Orbegozok: «Perspektibarekin jolastuz, argazki politikak eta dibertigarriak atera daitezke». Hilerriko beste pareta batean, beren ekarpena egiteko aukera izango dute bisitariak, hil aurretik egin nahiko luketena idazteko aukera izango dute. 'Buelta egunik gabeko bidaia egin' idatzi du, dagoeneko, herritar batek.

Banku bat jartzeko aukera aztertuko du udalak orain, lasai egon nahi dutenek horretarako aukera izan dezaten. Estangak nabarmendu duenez, ikusi duten herritarrek «gustura eta esker onez» hartu dute horma irudiaren proiektua. «Herritarrei hogeit hamar bote eta hamar pintzel utziz gero argi dago mundu asko sortu daitezkeela», azpimarratu du Orbegozok horma irudiari begira.



Estalpe baten beharra aztertuko dute prozesu batean

Hiru bilera egingo dituzte guztira, eta lehena bihar izango da, 11:00etatik 13:00etara udaletxeko pleno aretoan

Erredakzioa

Anoetan estalpe baten beharra ote duten hausnartzeko partaidetza prozesua jarriko du martxan udalak. Prozesuan hainbat galderari eman nahi diote erantzuna: «Zeintzuk dira gaur egun estalita dauden guneak? Zeintzuk dira gune horien ezaugarriak? Zein da gaur egun ematen zaien erabilera? Nortzuk erabiltzen dituzte? Norentzat behar da estalpe bat? Zein erabilera eman nahi diogu? Zein estalpe mota nahi dugu? Zertarako? Non jarri nahi dugu? Estalpe bat egiteak zer ekarriko dio herriari?». Galdera horiei guztiei erantzuteko parte hartze prozesua izango da abiatuko dutena, hiru bileratan banatuta.

Prozesu osoa online jarraitzeko aukera izango da www.anoeta.eus atarian. Bertan egindako saio guztien eskema eta aktak argitaratuko dituzte eta nahi duenak bere proposamena egin ahal izango du, formulario bat beteta.

Ahalik eta parte hartzaile gehien egotea komeni dela aipatu du udalak, hausnarketa eta emaitza aberasgarriagoak izan daitezen herriarentzat, beraz, bileretara azaltzeko gonbita luzatu diete anoetarrei.

Bihar egingo duten bileran, gune estalien kokapen eta erabilerari buruz hitz egingo dute. Horretarako, udaletxean bilduko dira herritarrak 11:00etatik 13:00etara bitartean. Biharkoaren ondotik, azaroaren zehar beste bi bilera egingo dira, nahiz eta bilera horien datak aurrerago zehaztuko dituzten. Batean, balizko estalpe berriak izan beharko lituzkeen ezauzgarri eta kokapenaren inguruko eztabaida egingo da, eta bestean, aukeran dauden proiektu edo ideia ezberdinen artean erabakitze lan saio bat egingo da.

Kultur festa dute aurretik

Gaur hasiko da Orexako Kultur Hamabostaldia 'Sexijentziak askatuz' lanarekin; igandeko irteera bertan behera utzi dute

Rebeka Calvo

Gaur hasiko dute Orexan, Kultur Hamabostaldia. Bazen Behin clown taldeak *Sexijentziak askatuz* antzezlan eskainiko du. Bihar arratsaldean haurrak izango dira protagonista eta gauean *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala ikusi ahal izango da.

Igandean urteroko Oresa-Uitzi irteera egitekoak ziren, baina eguraldi iragarpena dela eta, bertan behera utzea erabaki dute, eta udaberrian egingo dute.

Kultur Hamabostaldiko lehen etenaldia eta gero, asteazkenetik aurrera egongo dira hurrengo ekitaldiak. Asteazkenean bertan, Lankuren *Izeba Tekla* emanaldia egongo da lehenik, eta gero, Jan Tolosaldea proiektura gertu-



Ruper Ordorikak jo zuen iaz, Kultur Hamabostaldiaren barruan. J. A.

ratzeko aukera izango dute, bideo emanaldi eta mahai inguru baten bidez, besteak beste, Tolomendiko Iker Karrerak emango ditu azalpenak.

Azaroaren lehen Saharar Eguna ospatuko dute. Euren bizimodua ezagutzeko aukera emango dute eta baita saharar jakiak dastatzeko ere; kuskusa

eta arkumea izango dituzte. Musika-
ren tarteetan Adunako Beñat Igerabide gonbidatu dute. Azaroaren 2an aurkeztuko du bere azken lana, *Geldialdi bakoitzean* izeneko.

Azken egunerako, azaroaren 3rako, utzi dute herri afaria eta musika ere izango dute ondo bukatzeko.

KULTUR HAMABOSTALDIA

GAUR, URRIAK 26

22:00. *Sexijentziak askatuz* antzezlan, Bazen Behin clown-en eskutik.

BIHAR, URRIAK 27

16:30. Haurrentzat merienda.

17:00. Haurrentzat film emanaldia: *Nur eta herensugearen tenplua*.

22:00. *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala.

URRIAK 31, ASTEAZKENA

10:00. Musika, jolasa eta pianoa uztartzen dituen *Izeba Tekla* emanaldia.

22:00. Jan Tolosaldea proiektua aurkezteko bideo emanaldia eta ondoren, mahai ingurua.

AZAROAK 1, OSTEGUNA

12:30. Saharako egunerokotasuna erakusteko ikus-entzunezkoa.

14:00. Saharar bazkaria.

AZAROAK 2, OSTIRALA

22:00. Beñat Igerabide adunarrak kontzertua eskainiko du eta *Geldialdi bakoitzean* diskoa aurkeztuko du.

AZAROAK 3, LARUNBATA

21:00. Herri afaria.

Ondoren, Puro Relajo taldeak mexikar musika eskainiko du eta gero, DJ Txoko ariko da.

Hilberriak eta urteurrenak



BIGARREN URTEBETETZEA Manuel Aguirre Esnal

'OANDA'

Magalean hartuta
belaunaren gainean
hantxe jolasten ginen
era bikainean
nahiz eta orain zauden
zeru urdinean
betiko joan zerela
gaude jakinean
zure laztan goxorik
hartu ezinean.

Zure bilobak: Iker, Beñat eta Anuk.

Bere bigarren urtebetetzeko oroitzapen meza IGANDEAN izango da, eguerdiko 12:30ean, Azpeitiko PARROKIAN.

AZPEITIA, 2018ko urriaren 26a

ataria jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Frontenis Txapelketan izen ematea ireki dute

Erredakzioa

Azaroak 5 da Berrobiko XXVII. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketan izena emateko azken eguna. Berrobi bertako Iriarte Jatetxean edo Tolosako Aralar Camp Base dendan eman daiteke izena eta pertsona bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Txapelketako egutegiaren zozketa azaroaren 6an egingo dute, 19:30ean, Berrobiko udaletxean. Neurketak, berriz, azaroaren 17, 18, 24 eta 25, eta abenduaren 1 eta 2an jokatu dituzte, eta finalak abenduaren 8an izango dira. Lau modalitatetan antolatu dute txapelketa. Mutilek banaka nahiz binaka parte hartu ahal izango dute; emakumeek binaka; eta bikote mistoek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Ikasleek Tolosaldeko Autodefentsa Sarea osatu dute

Erredakzioa

Tolosaldeko ikasle mugimenduak Autodefentsa Sarea osatu du. Esan dutenez, «aldaketa eta borroka garaia» da, «ikasleria eta gazteria iraultzaileak argi utzi du une oro desjabetuon defentsa tinkoa egiteko prest dagoela». Sarearen berri eman dute oraingo, eta esan dute ikasleak prest daudela «geurea dena defendatzeko, burgesiari hortzak erakutsi eta ez gaudela beldurtuta argi uzteko. Ez daukagulako ezer galtzeko, baina dena dugulako irabazteko. Langile kontrolpeko guneak lortu eta baliatuko ditugu gure borroka indartzeko, indibidualismoa kolpatu eta ikasleond defentsa inkondizionala egiteko eta garaipe txikiak lortuz langile boterea eraikitzeko».

Gazteek ere jarriko dute postua azokan

Igandean azoka eguna izango dute Belauntzan eta herritarrek ere animatu dira postuak jartzera; goizez egingo dute

Rebeka Calvo

Belauntzako Azoka igandean izango da, 10:00etatik 14:30era, plaza inguruan eta frontoian. Oso giro polita sortzen dela esan du Silvia Moneo alkateak, eta aurten bereziki kontentu daudela ere esan du. «Lau bat postu herritarrenak izango dira, eta 11 eta 14 urte arteko gaztetxoek ere postu pare bat jarriko dituzte. Lehen aldia da animatzen direla eta berri pozgarria da».

Iaz 20 bat postu izan ziren, gehienak kanpotik, eta horietako askok ez dute errepikatuko, aurten beraz, postu gutxiago egongo direla esan du alkateak, hamar inguru. «Gure helburua ez da kanpotik ez dakit zenbat postu ekartzeari, herrian giroa sortu eta herritarrei

postua jartzen laguntzea da gure nahia, kontentu gaude beraz».

Herritarrek eurek egindako gaztak eta ogiak eramango dituzte, eta baita eztiak, arrautzak eta barazkiak ere, besteak beste. Gazteek aldiz, eurek egindako bizkotxoak eta eskulanak eramango dituzte. Postuekin batera aurten lehen aldiz hamaiketako eskainiko du udalak. «Lehen bazkaria egiten genuen, baina aurten hamaiketakoarekin probatu nahi dugu. 11:30ean izango da Ostatuan bertan, horrela bide batez, udan ireki zen Ostata ezagutzera emateko», esan du Moneok.

Alkateak herritarrek animatu nahi ditu azoka bisitatzea, eta baita kanpotarrak ere. «Etorri daitezela Belauntzara, giro ederra izango dugu eta». Era berean, parte hartzen duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie «ferriaren oinarri eta euskarri direlako».

Ibarrako hileko azken ostirala berezia izango da

Erredakzioa

Hileko azken ostirala da gaur, eta hori dela eta elkarretaratzeak egingo dira herriz herri, ohiko leku eta orduetan. Ibarran baina, berezia izango da Maite Aranalde Ibarrako presoaren bueltan egingo baita.

Duela sei bat hilabete Aranalde Espainiaratu ahal zutela eta –Maite Aranalde momentu horretan Frantzian zegoen preso– Ibarrako hainbat taldek eta norbanakok bat egin zuten eta talde bakoitzak gaia landu zuen. «Behin Maite Espainiaratuta taldeak elkartu eta gaia iri heltzeko zer egin genezaken aztertu genuen», esan du Oihana Lopetegui ibartarrak. Lehen urrats bezala azken ostiralei bultzada berezia ematea adostu zutela ere esan du Lopetegik. «Azken ostirala talde, eragile edo norbanako

desberdinen esku uztea erabaki genuen, eta gaur izango da lehendabizikoa». Ekimena harago doa, hala ere: «Ez da azken ostirala beste norbaitek antolatuko duela bakarrik, antolakuntza berri horrek ekitaldiari beste izaera bat ere emango baitio. Orain arte Ibarra sarrean elkartu izan gara formatu berean, eta aurrerantzean talde bakoitzak erabakiko du hitzorduak zein formatu izango duen, zein lekutan egingo den eta abar». Gaurko lehen hitzordurako lekua eta ordua mantendu dute, 19:30ean elkartuko dira herri sarreran, baina izaera berezia izango du. «Antolatzaileak Maitearen lagunak gara eta berezia izango da. Aitzaki honekin garai batean biltzen ginen lagunak berriz ere elkartu gara, eta gutun bat idatzi diogu eta musika ere jarriko dugu. Guretzat hunkigarria izango da».



Eskualdeko irristalariak Donostiako Klasikan, joan den igandean. ATARIA

Podium osoa hartu dute Irristakakoek

08

Donostiako Klasikan, 15 kilometroko ibilbidean, emaitza bikainak lortu dituzte eskualdekoek

Erredakzioa

Pasa den igandean, Donostiako 15 kilometroko klasikan, helduen-tzako patinajeko Gipuzkoako errepidetako txapelketa jokatu zen eta bertan Iristaka taldeko kideak emaitza oparoak lortu zituzten.

Mutiletako sailkapen nagusiko podiuma, osorik, Iristakako taldekideez

osatuta izan zen. Iñaki Zubillaga izan zen txapelduna, Unai Perea eta Josu Aldatzen aurretik. Iristaketa egokitu Alai Irazu izan zen azkarrena.

Adinaren arabera ere maila desberdinetako dominak banatu ziren. Sailkapen hauetan Iristaka taldeak denora 7 domina lortu zituen: Imanol Imazek seniorretan, Iñaki Zubillaga, Josu Aldatz eta Igor Sanz M-30ean eta Mari Jose Azurmendi eta Unai Perea M-40an.

Iristaka taldetik kide guztien lana azpimarratu eta parte hartzaileak zoriondu dituzte.

Aulkitik

Emaitza hobeen bila

Aurreko astean, Bizkerre taldearen aurkako partida jokatu genuen. Bizkaian jokatzen dugun guztietan bezala, autobusean joan ginen. Zuriñek bere gitarrarekin batera, bidai «luze» guztietan bezala, kontzertu bat eskaini zigun. Eta bidaiaren bukaera ohituraz abesten genuen *Camina* jo zuen. Getxora iritsi eta berehala partidaren kontzertu ginen, bagenekien



PATRICIA LARRARTE

zaila izango zela eta dena eman beharko genuela Bizkerre taldeari aurre egiteko. Lehenengo zatirene hasieran Ireneren eskutik iritsi zen gure gola, baina denbora gutxian aurkako jokaldi batean, Bizkerrek

gola sartu zuen. Hainbat aukera izan arren, ez genuen lortu bigarren gola sartzea. Eta partida 1-1 amaitu zen. Orain lanean jarraitu behar dugu, eta aste honetan etxean jokatuko dugun partidaren zentratu behar gara, eta esfortzuarekin eta gure zaletuekin ziur emaitza hobea lortuko ditugula.

Aupa Tolosa!

Otaegi, Euskal Herriko aizkolari onenaren lehian

Zizurkil. Euskal Herriko Aizkolari Txapelketaren Lehen Mailako finala jokatuko da igande honetan Iruñeko Labrit pilotalekuan, 12:00etatik aurrera. Aitzol Atutxa, Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Iñaki Azurmendi, Eneko Otaño eta Joseba Otaegi zizurkildarra ariko dira lehian. Lau kanardiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko ebaki beharko dituzte sei aizkolariak. 40 minututik gorako lan gogorra aurreikusten da. Atutxa eta Vicente dira faboritoak.



Atzeratutako xare jardunaldia jokatu da

Irura. Ametsa Trinketan Iparraldeko Ligan atzeratutako partidak jokatu dira. Lehen partidaren emaitza ondorengoa izan zen: Hardoytarrak 01 (Barneix-Lafargue)-35/ Ametsa Pilotak 03 (Eizagirre-Isaga) 23. Bigarren goan eta azkenekoak ere etxekoak gaitzaille suertatu ziren: Ametsa 01 (Huarte-Iturbe) 19/ Hardoytarrak (Barneix-Lafargue) 35. Angeluarrak nagusitu baldin baziren ere bi partidetan, irurarrek ez zuten batere gaizki jokatu.

TALDE NAGUSIAK

Sala Quinto

LASKORAINIKASTOLA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Quinton, larunbatean, 18:30ean.

LAUBURU IBARRA

San Juan

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Larunbatean, 18:00etan, Ibarra.

LAUBURU IBARRA

Garoa Taberna

Areto futbola. Gipuzkoako Liga.
Ibarrako Belabietako kiroldegian,
ostiralean, 21:00etan.

ANOETAFT

SAMANIEGO ORIXE

Areto futbola. Gipuzkoako Liga.
Anoetan, ostiralean, 20:30ean.

Universidad Deusto

TOLOBOLEI BIDE BIDE

Boleibola. Bigarren Maila.
Igandea, 12:30ean.

TOLOSA CF

Erandioko Betiko Neskak

Futbola. Neskak. Euskal Liga.
Larunbata, 17:30ean, Usabalen.

Deusto Donostia

TOLOSA CF

Futbola. Mutilak. Erregional Ohorezko
Maila. Larunbatean,
17:00etan, Donostiako Zubietan.

BILLABONA KE

Hernani

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. Igandea, 16:30ean,
Villabonako Arratzain futbol zelaian.

Roteta

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. Larunbata, 17:30ean,
Donostiako Herreran.

TOLOSA CF 'B'

Goierri Gorri

Futbola. Neskak. Ohorezko Erregional
Maila. Larunbatean, 15:30ean, Tolosako
Usabalen.

Hernani

INTXURRE KKE

Futbola. Neskak. Gorengo Maila.
Larunbatean,
18:00etan, Hernaniko Zubipen.

INTXURRE KKE

Asoleus

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
Larunbata,
16:30ean, Alegiako Elorri.

Axular

DANENA KE

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
Larunbatean,
19:30ean, Donostiako Puion.

Ereintza Aguaplast

TOLOSA CF

Eskubaloia. Lehen Nazional Maila.
Larunbatean,
19:30ean, Errenterian.

TAKE REDLINE MEKANIKA

Atletico San Sebastian

Saskibaloia. Lehen Maila. Igandean,
11:20an, Usabalen.

TAKE ARALAR KIROLAK

Cafes Aitona Askatuak

Saskibaloia. Lurralde Mailako Seniorrak.
3. jardunaldia. Larunbatean, 18:00etan,
Tolosako Usabal kiroldegian.

OSTIRALA URRIAK 26

BEASAIN

PROMOZIO MAILAKO LAU ETA ERDIKO TXAPELKETA

21:00. Jaka-Ladis Galarza eta Arteaga II-
Eskiroz-en arteko partida, jaialdiko lehena.
Hirugarrena, Peña II.a eta Etxeberriaren
artekoa, txapelketakoa. Estelarra
Bengoetxea VI / Elezkano II.ak jokatu
dute, lehen mailako lau eta erdikoa.

IGANDEA URRIAK 28

EIBAR, ASTELENA

LAU ETA ERDIKO TXAPELKETA

17:00. Jokin Altuna eta Victor-en arteko
txapelketako partida. Irabazlea
finalerdietan egongo da.

TOLOSA, BEOTIBAR

OGBERRI MIGEL SOROA TXAPELKETA

16:30. Hiru partida:
- Ariztegi-Ugartemendia/
Larrañaga-Uranga.
- Aristi-Irazustabarrena/
Agirreamalloa-Ibarloza.
- Egiguren-Sarasa/Zubiria-Alduntzin.

TOLOSA, OLARRAIN AUZOA

XXX. ABRAHAM OLANO MENDI

BIZIKLETA TRABESIA HERRIKOIA

09:30. Izen ematea 08:00etatik
09:00etara, Benta Handin.



**BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 27 • 10:00
Infantilen 1. maila
BILLABONA FKE - DANENA K.E

Larunbata, 27 • 12:00
Kadete 1. maila
BILLABONA FKE - URNIETA K.E A

Igandea, 28 • 16:30
Preferente maila
BILLABONA FKE - HERNANI C.D



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Topic zentroan egin zuten agerraldia, antolatzaile nahiz babesleek; azaroaren 1etik 4ra izango da 50. lehiaketa. I URKIZU ARSUAGA

Aurtengoa, urrez jantzia

Inoizko bereziena izango da, aurtengoa, Tolosako Abesbatza Lehiaketa; mende erdia beteko du kultur hitzorduak

Iztea Urkizu Arsuaga

Urrezko urtemuga iritsi zaio, azkenean, Tolosako Abesbatza Lehiaketari. 50. lehiaketa izango da aurtengoa eta, efemeride dirdiratsua ospatzearekin batera, hitzordua bera ere zertxobait moldatu dute, zenbaki boroibila eta lehiaketaren ibilbidea hauspotze aldera: aurtengo abesbatzako parte hartzaileak antolakuntzak aukeratu ditu, eta urteotan guztiotan irabazle suertatu diren abesbatzak nahiz kultur aniztasuna kontuan izan dituzte. Tolosako Ekinbide Etxeak Topic zentroan aurkeztu du aurtengo lehiaketa, eta bertan izan dira, Julian Lakunza TEEko lehendakaria, Luis Espinosa abesbatza lehiaketako antolakuntzako kidea, Olatz Peon Tolosa-

ko alkatea, Denis Itxaso Gipuzkoako kultura diputatua, Bingen Zupiria kultura eta hizkuntza politika sailburua eta Ander Aizpurua Kutxa Fundazio-ko ordezkaria.

Datorren azaroaren 1etik 4ra bitartean, Tolosako Abesbatza Lehiaketak Leidor aretoko oholta hartuko du, eta hain justu antzoki horri begira jarri da, Julian Lakuntza, urteurrenaren harira: «Beti zenbaki bat egoten da eszenatokian, urtero aldatzen da eta, azkenean, iritsi zaigu beste zenbaki biribil bat; inoizko biribilena. Ohore bat da, guretzat, abesbatza lehiaketaren 50. urtemuga ospatu ahal izatea».

Kultur hitzorduaren efemeridearen garrantzia azpimarratzeko aldera, Bingen Zupiriak azaldu du, «abiesbatza lehiaketa Eusko Jaurlaritzaren bera baino zaharragoa» dela, eta urteotan guztioan izandako gertakari historikoak errepasatu ditu, labur, lehiaketaren hari luzeari fokua jartzeko: «Tolosako Abesbatza Lehiaketa gertakari histori-

ko oso garrantzitsuen lekuko izan da: Burgosko prozesua, Euskara Batuen sorrera, Francoren diktaduraren amaiera, Eusko Jaurlaritzaren sorrera nahiz Europar batasunarena,...».

Horrela, 50 zenbakiaren azpian beste ehunka zenbaki ere badirela plaza-ratu nahi izan du Julian Lakunza TEEko lehendakariak. Izan ere, abesbatza lehiaketako antolatzaileek txosten bat argitaratu dute, urteok guztiok emandako datu eta zenbakiekin. 50 urteotan, guztira, 60 herrialdeetako abesbatzak aritu dira Tolosan, 5 kontinenteetatik: Ozeaniako bi, Afrikako bi, Asiako bederatzi eta Ameriketako hamar, esaterako.

Euskal Herriari begiratu, guztira 170 abesbatzak parte hartu izan dute Tolosan, eta Kataluniakoak 29 izan dira. Orotara, 820 abesbatzaren erakusleho izan da, mende erdiz, Tolosako Abesbatza Lehiaketa.

Lakuntza herrira begira ere jarri da, azpimarratuz, Tolosako Hodeiertz

abesbatzak hamaika aldiz parte hartu duela lehiaketaren historian; aurtan, larunbateko kontzertu berezian parte hartuko dute, beste bi abesbatzarekin batera.

«Unibertsitate txiki bat»

Hastapen eta gogo xumez hasitako lehiaketa, nazioarteko hitzordu garrantzitsuenen artean sartu da; bai, behintzat, abesbatzen munduan. Ahots talde baten uztarte gaitasunaz harago, ordea, Tolosako Abesbatza Lehiaketa hainbat konpositore eta zuzendariren eskola izan da, Lakunzak azaldu duenez.

«1978az geroztik, 430 euskal abesti kantatu izan dituzte Tolosan parte hartu duten abesbatzek». Horrela, honakoak izan dira gehien abestutako obrak: *Lili eder bat*, *Ametsetan*, *Neska ederra* eta *Neure maitea*. Tolosako Ekinbide Etxeak, ez du zalantzarik: «Gure lehiaketa unibertsitate txiki bat izan da gure lehiakideentzat. Abeslari, zuzendari, konpositore, publiko, aurkezle, itzultzaile, interprete, komunikatzaile, kazetari nahiz antolatzaileak hezi ditu; finean, pertsonak hezi ditu».

Horrela, Julian Lakunza TEEKo lehendakariak, 50 urteotan beren aletxo jarri izan duten eragileak ere gogoan izan ditu: «Guztiek elkarrekin lortu dute, Tolosako Abesbatza Lehiaketa bat munduko abesbatza hitzordu prestigiotsuenetako bat izatea».

Abesbatzen mapamundia

Luisi Espinosa antolakuntza taldeko kideak lehiaketaren alde humano horri tira nahi izan dio, Lakunzaren bi-

detik, eta nabarmendu du, hitzordua sentimendu baten bueltakoa dela: «Tolosako Abesbatza Lehiaketak hainbat jatorri, kultura eta ohitura elkartzen ditu, eta guztiek komunean dute abesbatza musikarekiko sentimendua».

Grina musikaz gain, ordea, abesbatza musika bera eta abesbatza musikaren inguruko ezagutzak garatzeko txokotzat ere jo du Tolosakoa: «Konpositoreen eskola izan da, eta Tolosako lehiaketak lortu du, gaitasun berriak lortzea, lehen sekula abestuko ez liratekeen obrak, gaur egun erreperorioetan egotea».

Besteak beste, Busto, Azurzatarrak, Elberdin, Sarasola eta Tolaretxipi aipatu ditu, Tolosako lehiaketatik nazioartera begira jarri diren zuzendari eta sortzaileen artean.

Azaroaren lehen ekingo dioten lehiaketari begira, berriz, Espinosak ideia argiz azaldu du aurtengo lehiaketan aukeratutako abesbatza sortaren ezaugarri nagusia: «Abesbatza musikaren unibertsaltasuna islatu nahi izan dugu, abesbatza musika mundu osoan barrena egiten baitute, lekuan lekuko estilo eta moduetan».

Bide horretan, bi irizpide baliatu dituzte parte hartzeko gonbidapenak bidaltzerakoan: irabazle izan diren abesbatzak edo abesbatza musika egiteko aniztasuna islatzen dutenak hautatu dituzte. «Zaila da zergatia azaltzen, baina munduko txoko bakoitzeko estiloa bereizi egiten da. Horrela, estilo nordikoa, eslaviarra, frantziarra nahiz alemaniarra entzuteko aukera izango da, adibidez.

Ameriketarik, berriz, bi eskola oso desberdin ezagutzeko aukera izango da: kubatar abesbatza bat, erritmoarekin lan handia egiten duena, eta AE-Betako beste bat, zerikusirik ez duena. Eta, Asiatik, gaur egun kontinente hartan dauden hiru eskola garrantzitsuenetako abesbatzak bertaratu dira Tolosara. Sekulako jauzia egin dute Asian, urte gutxian». Espinosak Indonesiaren garapen musikala azpimarratu du, abesbatzei begira, eta onartu du, Batavia abesbatza Asiako onena iruditzen zaiola gaur egun.

Abesbatza musikaren mapamundia behar bezala osatzeko, epaimahaian ere tradizio, eskola eta teknika horien ordezkariak izango dira, ostegunetik igandera, taldeen lana epaitzen.

Dena ez da, ordea, lehia izango, eta Tolosako 50. Abesbatza Lehiaketak lehiak kanpoko hiru kontzertu ere izango ditu egitarauan. Lehena asteazken iluntzean izango da, Esloveniako Vokalna Akademija Ljubljana abesbatzaren eskutik; abesbatza lehiaketa bat irabazi duen ahots grabez osatutako abesbatza bakarra da, munduan.

Bigarren kontzertu berezia Tolosako eta inguruko taldeek eskainiko dute, African Sanctus kontzertu berezian: Hodeiertz, Oroith eta Loinaz abesbatzak Leidorren ariko dira, Enrike Azurzaren gidaritzapean.

Azkenik, Tolosako 50. Abesbatza Lehiaketa talde baten lehen pausoen lekuko ere izango da: igandean, Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren aurkezpen kontzertua izango da, Esteban Urzelaireren eta Isabel Manteconen zuzendaritzapean.

TOLOSako 50. ABESBATZA LEHIAKETA. EGITARAU URRIAREN 27A, LARUNBATA

19:00. Entsegu ireki eta kontzertua, Jordan Sramek eta Kea ahots taldearen eskutik, Jesuitinetako kaperan.

URRIAREN 31, ASTEAZKENA

19:30. Lehiaketako inaugurazio kontzertua, Esloveniako Vokalna Akademija Ljubljana abesbatzaren eskutik. Aco Biscevic tenorea eta Breda Zakotnik piano jotzaileak ere parte hartuko dute, Sotajh Kureten zuzendaritzapean.

AZAROAREN 1A, OSTEGUNA

16:00. Lehenengo lehiaketa saioa: Kinokai

Youth Choir Kanami (Japonia), Kup taldea (Euskal Herria), The Ateneo Chamber Singers (Filipinak) eta Entrevoces (Kuba).

16:00. Bigarren lehiaketa saioa: I Vocalisti (Alemania), Landarbaso (Euskal Herria), Orea (Ukraina) eta Batavia Madrigal Singers (Indonesia).

AZAROAREN 2A, OSTIRALA

19:00. Hirugarren lehiaketa saioa: Schola Cantorum (Norvegia), St. Jacobs Vokalensemble (Suedia), Mikrokosmos (Frantzia), The Salt Lake Vocal Artists (AEB) eta Kame Koris (Letonia).

AZAROAREN 3A, LARUNBATA

11:00. Laugarren lehiaketa saioa: Convivium Singers (Erresuma Batua), El

Leon de Oro (Asturias) eta Kammerchor Saarbrücken (Alemania).

19:00. African Sanctus kontzertu berezia, Enrike Azurzaren zuzendaritzapean: Hodeiertz abesbatza (Tolosa), Oroith abesbatza (Ordizia) eta Loinaz abesbatza (Beasain).

BEASAIAREN 4A, IGANDEA

11:00. 50. urteurrenoko sari nagusia. Lehiaketa saioetan puntuazio altuenak eskuratu dituzten abesbatzen erreperitorio berri bat abestu beharko dute, epaimahaiak erabakia hartzeko.
19:00. Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren aurkezpen kontzertua, San Frantzisko elizan.

“

ABESBATZEN MUNDUAN, DENEK DAKITE TOLOSA NON DAGOEN ETA ZER DEN; ZERBAITENGATIK IZANGO DA

12

AITOR IMAZ
KUP TALDEA

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren bueltan ibili izan da beti, ikusle zein antolakuntzan eta, aurten, oholtzan aritzea egokitu zaio, KUP taldearekin; errepertorioa ondo mamitu dute, munduko onenekin lehiatzeko.

”

Itzea Urkizu Arsuaga

Aitor Imazek (Tolosa, 1975) ia bizitza osoa darama abesbatzen munduari lotuta. Leidor eta Hodeiertz abesbatze-kin hasitakoari beste zenbait taldetan eman zion jarraipena, eta gaur egun KUP taldean ari da. Biribila izateko bidean da, gainera, abesbatzaren 15. urteurrena: Tolosako lehiaketan ariko dira, azaroaren lehen, munduko onenekin lehian.

Tolosako Abesbatza Lehiaketak 50. urteurrena du aurten, eta KUP

taldea parte hartzaileetako bat izango da. Zein aldarterekin zaudete?

Egia esan, urtebete baino gehiago da gonbita jaso genuela, eta inongo momentutan ez genuen ezezkia ematerik pentsatu. Ohore bat izango da guretzat, 50. urteurrenean hor izatea, beraz, baiezkoa eman genuen. Urte hau guztia bi aste barru gertatuko denaren prestaketa bat izan da. Onartzen dut, eta denon sentsazioa da, sekula baino prestatuago gaudela, aritu garelako. Lehiaketan aurkeztuko dugun progra-

ma prest zegoen udarako, eta hortik aurrera aritzea eta aritzea izan da gure lana. Kontzertu dezente eskaini ditugu, eta hori oso ondo etorri zaigu, Tolosara puntuan iristeko. Momentuz, beraz, pozik gaude egindako lanarekin, eta gero gerokoak. Bai baitakigu zer datorren... Sekulako lehiaketa izango da aurtengoa, eta Leidorren egoteak eta Leidor beteta ikusteak mereziko du.

Aurten abesbatza parte hartzaileak antolakuntzak berak hautatu ditu, eta honezkero lehiakideak



zein diren jakingo duzue. Zein aurreikuspen dituzue Tolosarako?

Azken 25 urteotako abesbatza irabazleak gonbidatu dituzte, beste zenbaiten artean; pentsa zer datorren. Maila sekulakoa da, talde guztiak ezagutzen ditugu, eta badakigu zer datorren. Guk gure onena emango dugu, eta inork ez daki zer gertatuko den. Azken finean, zortzi pertsona ariko dira epaimahai lanetan, eta askotan hor izaten da gakoa. Lehiaketa bat da, eta sekula ezin da jakin hor dagoen alemanari, ingelesari edo asiarrari zer gustatuko zaion eta zer ez; oso subjektiboa da askotan. Paperari begira, aukerarik ez dugula pentsa liteke, baina ilusioz joan beharra dago, ahalik eta ondoen egitera.

Ni antolakuntzan ibiltzen naiz urtero, eta ikusten duzu, nola abesbatza berari, epaimahaikide batek puntuazio oso altua ematen dion, eta beste batek ez. Jakintzat ematen da, aurten parte hartuko duten talde guztiak oso onak direla teknikoki, beraz, teknikaz gain, beste zerbait transmititu behar duzu epaimahaiarengana iristeko.

Udan Taiwanen izan gara, eta hala esan digute, behin baino gehiagotan: nolabait ere, publikoarengana iristen ginela. Euskal folklorea abestu, eta filipinar batek hori esateak, animoa asko igotzen du, egia esan. Zerbait badago hor.

Horrenbestez, hor dago koska: instrumentua hau da, badakizu Tolosara etorriko diren instrumentu guztiak oso onak izango direla eta, beraz, bestelako ñabardurek garrantzia hartuko dutela.

Entzulea zein momentutan dagoen ere erabakigarria izan daiteke, ezta? Egun guztiak ez dira berdinak, batzuetan gehiago hunkitzen da entzulea, eta epaimahaiari ere gerta dakioke horrelako zerbait.

Bai, hori da. Pertsonak gara, eta behar-bada zuri negarra eragin dizun obrak, beste bati ez dio sentimendurik sortuko. Nire ustez, sentimenduek balio handia dute horrelakoetan eta, bereziki, aurten. 16 talde indartsu datoz, beraz, zerk bereziko dituen? Ikusi egin behar. Denak, ustez, beren maila one-

na ematera etorriko dira, eta zaila da bereizgarria zer izango den jakitea.

Azkenekoz Europako Sari Nagusian aritu zineten Leidorren, 2011n. Zein oroitzapen duzue?

Oso oroitzapen polita. Lehen aldia genuen Europako Sari Nagusian, eta herrian bertan aritu ginen; horregatik bakarrik, 2011koak ukitu berezia zuen. Leidor beteta, ezagun pilo bat eta gure onena emateko gogoia genuen. Ordea, momentu hartan, jende askok esan zигun oso hotzak izan ginela, eta akaso kontzentrazio handiegia genuela.

Eta, orain, ikusten ari gara gu entzutera etortzen direnek aurkakoa esaten digutela, beraz, zerbait landu dugu edo zerbait aldatu dugu. Horregatik, KUPek duela zazpi urte zuen egoera eta gaur egungoa oso desberdinak dira zentzu horretan. Prestaketa aldetik sekula baino seguruago ikusten dugu geure burua, eta hori gero ikusi egiten da: antzokiko oholtzatik besaulkietara zerbait transmititzen da.

2011 oso berezia eta oso polita izan zen guretzat, saririk lortu ez genuen

arren, abesbatza amateurren mundu honetan txapeldunen ligan aritzearen pareko izan baitzen. Han parte hartzea amets bat zen. Eta, aurtengoa, beste *Champions* bat da, azken finean; Tolosan aritutako punta-puntako abesbatza guztiak, eta gu. Aurtengo lehiaketa horiekin guztiekin partekatzeko hutsa sari bat izango da guretzat.

Oholtzan aritzeko erraztasuna irabazi duzuela diozu. Horrez gain, 2011tik hona aldatu al da KUP?

Aldaketak badaude, noski, bizitza bera aldatu egiten delako, eta jende gaztea ere sartu da orduz geroztik. Baina, oinarriak edo bloketak antzekoa izaten jarraitzen du. Tolosara 34 etorriko gara, eta momentuz taldea osasun onez da.

Aipatu duzu udan Asian ibili zarela. Nolatan edo zertan?

Hain justu, Tolosako Abesbatza Lehiaketarekin lotura du. Izan ere, Tolosako lehiaketak gonbidatu asko izaten ditu, eta mundu guztiko jendea joan-etorrian ibiltzen da, Europako beste bost lehiaketa horien sarean dagoela-eta. Beste hainbatekin batera, urtero Taiwango pertsona bat etortzen da Tolosara eta, zorionez, gure diskoa emateko aukera izan genuen. Gustatu egin zitzaion, eta bidaia ateratzen zen.

Egia esan, denbora generaman uda honetako irteera prestatzen, baina esfortzu handia eskatzen du: 15 pertsona Taiwaneraino joatea dirutza bat da, eta 10 egun pasatu genituen han, gonbidatu europar moduan. Han beste txip bat dute, eta nik ez dut sekula horrelakorik bizitu izan.

Zein zentzutan?

Antolakuntza perfektua; 2.000 eserleku dituen antzoki erraldoi bat lepo beteta, *a cappella* kontzertu bat entzuteko. Gu, euskal folklorea abesten, eta entzuleak zutitzen. Jendea ilaran, abesbatza zuzendarien autografoak eskuratzeko. Oso bestelako kontzeptu bat da hangoa, hemen sekula imajinatu ere egingo ez genukeena. Horrek guztiak, noski, oso sententzio ona utzi zigun, badakigulako, ia ziur, ez dugula horrelakorik sekula bizituko.

Hemen, eliza bat justu-justu betetzen baldin badugu, pozik. Han, berriaz, kultura eta musika ulertzeko beste modu bat dute.

Asiatik Tolosara bertaratzaren diren abesbatzak teknikoki oso onak izaten direla diote adituek. Etorkizuna, besteak beste, han dago?

Hala diote. Aurten, adibidez, Indonesiako eta Filipinetako talde bana dator eta, ahotsaren eta teknikaren aldetik perfektuak izateaz gain, oholtzan ere sekulako gauzak egiten dituzte. Baina, hori, lana eginez lortzen dute. Indonesiar batek kontatuta dakit, aurten Tolosako lehiaketa prestatzeko lehenengo entsegura, abeslariak 25 obra buruz ikasita eraman behar izan zituztela. Horrek dena esaten du; beste dimentsio batean daude, beste lan egiteko modu batekin eta beste seriotasun batekin.

Jende izugarri bizi da han, eta zerbaitetan hasten direnean, bikain egiteko hasten dira.

Beste diziplina bat, denerako.

Hori da. Guk zaletasun moduan ikusten dugu hau guztia, baina han beste neurri bat ematen diote guztiari. Eta, horrez gain, esandakoa: han, abesbatza hauek guztiak ezagunak dira.

Hemen pop abeslari baten pare, adibidez?

Bai, hori da. Guk hemen lehiaketa bat irabazten baldin badugu, albiste

«Sekulako lehiaketa izango da aurtengoa, eta Leidorren egoteak eta Leidor beteta ilkusteak mereziko du»

nahiko isilik pasatzen da. Baina abesbatza asiarrak, nolabait, beren herriaren ordezkari ere sentitzen dira, erreferentzia direlako.

Amateurrak zarete. Zein da zuen lan dinamika?

Aurten 15 urte betetzera doa KUP, eta betiko errutinan jarraitzen dugu, egia esan: hilero entsegu bat. Askotan, hori kontatu eta jendea erabat harrituta geratzen da, baina hori da gure antolakuntza; bakoitza txoko batekoa da, eta hori da entseguak egiteko dugun modu bakarra. Momentuz ondo doakigu, eta badakigu, hilean behin, egutegian egun bat horretarako erreserbatu beharko dugula.

Hileroko entsegu hori luzea izango da, ezta?



Bai... Igandetan izaten da, 10:00etatik 20:00etara [barreak]. Ohitu egiten da bat, ez daukagulako besterik, eta badakigulako hori dela gure lan egiteko modua. Baina horrek etxean eta bakarrik lan egitea eskatzen digu, noski. Egia da abesbatza baten ohiko erritmotik aldentzen dela gurea, bai.

Ahotsa bereziki zaintzen duzue?

Nik ez bereziki. Betikoa da: hotza pasatzea saihestu eta hotz egiten duenean eztarria babestu.

Leidorren abestuko duzuenaren eduki mamitu duzue; erreperitorioa aurreraterik bai?

Urte berezia denez, oinarriak ere bereziak izango dira, aurten, Tolosako Abesbatza Lehiaketan. Talde bakoitzak 28 minutu izango ditu oholtzan, eta egitarau librea osatzeko aukera izan dugu; baldintza bakarra, euskarazko obra bat abestea izango da. Gainerakoan, bakoitzak nahi duena egingo du.

Guk, gure klasikotasunari eutsiko diogu, gure zuzendariaren izaera islatuz, eta musikaren historia errepasatuko dugu, nolabait. Berpizkundetik hasi, eta gaur egunera bitarteko musikarekin amaituko dugu saioa. Galus batekin hasiko gara, bi korutara,



Brahms bat ere bada tartean, eta Poulenc ere bai. Gero, musika garaikidera pasatu, eta *Homilius* abestuz eta, azkenik, euskal obra batekin amaituko dugu saioa. Gure klasikotasun horretan, dena den, berrikuntza zenbait ere txertatuko ditugu, koreografia bat egingo baitugu oholztan. Erronka bat izango da guretzat, Leidorren eszenatokia igo eta ezohikoagoa zaigun zer-bait egitea.

Errepertorioaren antolakuntza, beraz, Europako Sari Nagusian egin ohi denaren antzekoa izango da; libreagoa.

Bai. Bakoitzak 28 minutu izango ditu, eta talde bakoitzak nahi duena egingo du. Berez, normalena da abaniko guztia erakustea; epaimahaian dagoenak ikusi beharra dauka, talde bat gai dela musika mota guztiak lantzeko. Izan ere, musika edo garai zehatz bat bakarrik jorratuz gero, inor ez daki gainerako estiloetan abesbatza hori nola molda daitekeen. Horregatik, guk dena aurkeztuko dugu, duela 500 urteko musikatik hasi, eta gaur egunera bitarte. Egia esan, zuzendariak egitaraua pasatu zigunean bagenituen zalantza batzuk, baina orain oso gustura gaude egitarauarekin.

Aurten oholztan ariko zara, baina urtero izaten zara antolakuntzan edo eserlekuetan. Zer da zuretzat Tolosako Abesbatza Lehiaketa?

Txikitatik ezagutu dudan zer-bait da. Bere garaian solfeoa, abesbatza eta abarrak egin, eta modu horretan sartu nintzen mundu honetan. Leidor abesbatzan hasi nintzen, Hodeiertzen jarraitu eta Gipuzkoako talde askotan abestu izan dut gero. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan lehendakari ere izan nintzen eta, azken urteotan, Tolosako lehiaketan antolakuntzan ibili naiz. Aurten, lehiaketa kanpotik bizitzea egokituko zait.

Ezagutzeko zenuen ikuspegia zen, ezta?

Bai, hori da. Aurten, lehian izango garen, beste plano batean egotea dago-kigu, beraz, beste modu batean ikusiko dugu guztia. Nik onartzen dut, abesbatzen munduan aritzen garen guztiok bete-betean sartuta gaudela, eta Tolosa erreferentzia handia izan dela urtetan. Eta, bertakoa izanda, niretzat urteroko hitzordu garrantzitsuenetakoa izaten da lehiaketa. Eta, abesbatzen munduan, denek dakite Tolosa non dagoen eta zer den; zer-baitengatik izango da. **Tolosan, Gipuzkoan eta Euskal He-**

rrian, nola ikusten duzu abesbatzen etorkizuna?

Abesbatzen egoera zein den esaten ez nuke asmatuko. Batetik, talde entzute-tsuak daude, orkestrekin-eta lan egiten dutenak. Horrez gain, hemen inguruan herri bakoitzean abesbatza bat dago ia-ia., bakoitza bere mailan eta bere gauzak egiten. Eta, nolabait bi horien artean, bagaude talde batzuk: ez gara profesionalak, baina maila txukuna eskaintzen dugu.

Baina oso gai konplikatu da: murrizketa handiak daude eta, norbere lana aurrera ateratzeko segi eta segi aritzen garen arren, azkenean, onartzen dut horrek asko nekatzen duela bat. Egia da, gure kasuan, 2018a urte ona izaten ari dela, eta aurrera begira gauza berriak ateratzen ere ari zaizkigula. Horrelakoengatik, merezi du lan horrek guztiak.

Haur abesbatzak ere hor daude, Kantika edo Orfeo Txikia esaterako, baina hor bada adin-tarte kritiko bat, eta abesbatzaren jarraipena galdu egin ohi da, ikasketak tarteko, unibertsitate garaian.

Izan daiteke kontu kulturala? Alegia, musikarekiko lotura izugarria duten hurrez gain, zaila da, he-



men, haur batek abesbatza proba egin nahi izatea?

Bai eta, horrekin batera, izugarrizko aukera daukate gaur egungo haurrek, eskolaz kanpo. Musikan zentratzen dena, berriz, abesbatza ariko da, bai, baina hortxe eteten da, oro har: goi mailako ikasketak egiteko garaian. Noski, badira abesbatza jarraitzen duten gazteak, eta helduen taldeetara pasatzen direnak, baina ez da ohikoa. Eta, mutilen kasuan, badira beste zenbait faktore ere: ahotsaren aldaketa, batetik, eta mutil bat abesbatza batean aritzeak gaur egun oraindik duen kutsu estereotipatua ere. Abesbatzen federaziotik hori aldatzeko lan egin izan da, baina jarraikortasuna ematearena helburu zaila da, egia esan.

Estereotipoei tiraz, oro har, aurreiritzi asko al daude abesbatzen bueltan?

Bai, betikoa: jendeak elizarekin lotzen ditu abesbatzak, edo aspergarriak iruditzen zaizkio. Baina akaso ez dute sekula abesbatza kontzertu bat entzun [barreak], baina badute nolabaiteko aurreiritzi negatibo bat. Horren harira, gainera, anekdota txiki bat izan dugu berriki: *Oreina* filmean ateratzen gara KUPeko kideok eta, Koldo Almandozek lana Zumarragan aurkeztu baino astebete lehenago, Antioiko basilizan kontzertua eskaini genuen, Zumarragan bertan. Jendeak ezagutu egin gintuen filmean, eta as-

kok aipatu zuen «zein gazteak» garen. Askok abesbatza adineko pertsonekin lotzen dute, eta gizarteko klixe bat gehiago da, baina, nola puskatu hori?

Kontrara, 'talent show'-etan eta antzekoetan 'a cappella' abesten duten talde zenbaiten bideoak biral bilakatzen dira.

Gaur egun, gutxien espero duzunak milaka ikusle ditu eta, gero, KUP ikusten 30 pertsona baino ez daude. Zer da ona eta zer txarra? Bada, ez dakizu. Egia da, kalitatearen kontu horrekin askotan horrekin haserretu egiten naitela, baina ez da kalitate kontua baka-

«Jendeak elizarekin lotzen ditu abesbatzak, edo aspergarriak iruditzen zaizkio. Baina akaso ez dute sekula abesbatza kontzertu bat entzun, baina badute nolabaiteko aurreiritzi negatibo bat»

rrik: botoi egokia sakatzen asmatzen duenak arrakasta lortzen du eta, akaso, lan eta lan ari denak txoko batean jarraitzen du. Duela gutxi, irailean, Donostiako Zinemaldian abestu genuen, Euskadiko Orkestrarekin, eta jendeak sekulako laudorioak eskaintzen zizkigun: «Uf, zoragarria». Tira... Leku egokian egotea da, Belodromoan 3.000 pertsona baitzeuden gu entzuten. Musikalki, guretzat ez zen sekula-

ko lana izan, baina badirudi han egote hutsak gure lana biderkatzen zuela. Eta, hori da, oro har, gertatzen dena: Zinemaldian abestu izana sekulakoa iruditzen zaie askori eta, beharbada, Donostian bertan beste kontzertu bat doan eskaini, eta ez dira herena ere etortzen. Baina, gaur egun, horrela funtzionatzen du guztiak, eta azalpen bat ematea zaila da.

Tolosako Abesbatza Lehiaketaz gain, zein erronka dituzue, erritmo horri jarraipena emateari begira?

Esan bezala, urtea proiektuz bete joan da. Vocaliarekin zuzendari trukea egin genuen; Mozart proiektuan parte hartu genuen Gasteizen, bakarlariekin. Udan, berriz, Taiwanen hamar egunean sei kontzertu eskaini genituen, Tolosakoa prestatuz. Eta, handik bueltan, azaroaren 1a markatuta izan dugu egutegian, noski. Zinemaldian, Donibane Garazin, Zumarragan, Tolosan eta Madrilan abestu dugu, eta igandean Musikenen abestuko dugu, eta egunetan egunena iritsiko da. Behin hori pasatzen denean, abenduaren 15ean gure 15. urteurren kontzertua eskainiko dugu, Tolosan, Santa Klaran. Berezia izango da, Esteban Urzelai eta Isabel Mantecon taldekide ohiek zuzendari lanak egingo baitituzte. Horrela biribilduko dugu urtea eta, ezer aurreraterik ez dugun arren, proiektu potolo samar bat badugu esku artean.

«Espedizioa pauso txiki bat izango da, pixkana urrats gehiago emateko»

EDURNE PASABAN
MENDIGOIZALEA

Nepalen da mendigoizale tolosarra, 7.000 metroko Saipal mendia igotzea aurreikusten duen espedizioa burutzen; bertako lau emakumerekin batera egingo du, «duten egoera ezagutarazi eta bertakoen kontzientzian eragiteko».

Iñigo Terradillos

Edurne Pasaban (Tolosa, 1973) mendigoizalea proiektu berri batean murgilduta dago. Ez du zortzimilako gailurrik egingo kasu honetan, baina, tamaina handiko tontor bat igotzea aurreikusten du ekimenak. Nepalen ari da burutzen proiektua eta bertako lau emakumerekin batera igoko du mendia. Ekimenaren bitartez, «bertako emakumeek bizi duten egoera salatu eta gizarteratu» nahi dute, eta horrekin batera, «euren kontzientzian eragitea» lortu nahi dute. Espedizioari ekin aurretik TOLOSALDEKO ATARIA-n izan da tolosarra proiektuaren nondik norakoak azaltzen.

Nepal eta bertako emakumeak, hori da proiektuaren funtsa.

Hori da. Nepal hego-mendebaldeko zonaldea da, hain juxtu emakumeen bizi baldintzei begira larriena. Esan daiteke duela hainbat mende atzetik bizi direla, ez dute ezer aukeratzeko eskubiderik, eta espedizioa horren atzean dago. Hango emakumeen egoera salatu nahi dugu, eta egoera horri aurre egiten laguntzeko lehenengo pauso bat eman.

Proiektuak bertako lau emakumeekin mendia bat igotzea eta dokumental bat egitea aurreikusten du.

Nepaleko zonalde horretako pertsona bat harremanetan jarri zen han daukadan fundazioarekin. Elkar ezagutzen genuen, eta deitu egin zidan bere ideia kontatzeko. Bertako emakumeen egoera kontatu nahi zuela azaldu zidan,

eta horretarako espedizio bat burutu nahi zuela.

Inguru horretako emakumeek, esan bezala, ez daukate inongo eskubiderik. Erlijioari lotutako ohitura oso trinkoak dituzte. Ohituren artean, esaterako, bada bat oso deigarria eta ikaragarria dena: Chaupadi izena du; emakumeak, hilerokoa etortzen zaientean, etxetik botatzen dituzte, eta txabola batzuetan egoten dira, animaliekin, hilerokoa amaitu arte. Txabola horretan oso egoera gogorrean egoten dira, eta emakume batzuk ez dute jasaten eta hil egiten dira. Gisa honetako egoerak errepikatzen dira zonalde horretan. 14 urterekin ezkondu egiten dira emakumeak, eta orokorrean, gurasoek aukeratu eta prestatutako ezkontzak izaten dira, eta 15 urterekin ama izaten dira emakume edo neska hauek. Orduan, haurren zaintza iza-

ten da euren egiteko nagusia, lanik ezin baitute egin, gaizki ikusia dagoelako emakumeentzat. Gizonaren menpe bizi dira, ez dute ia eskubiderik emakumeek. Haurrak izatean semeak izatea da garrantzitsuen beraientzat, eta alabak baino ez badituzte mundura ekartzen, emakume horrek balioa galtzen du, eta gizonak beste emakume batekin ezkontzeko eskubidea du. Nolabait emakume horrek gizon horrekin egoteko eskubidea edo maila galduko balu bezala. Herriak ere baztertu egiten ditu semeak izaten ez dituzten emakumeak.

Bada, horri guztiari aurre egiteko bidean, pausotxo bat ematea du helburu proiektuak, jakitun baikara horrelako gizarte batean aldaketak ematea ez dela erraza. Gure asmoa da herrialde desberdinetako emakumeekin osatzea espedizioa, eta nirekin batera





Ameriketako Estatu Batuetako hiru emakume izango gara, bertako lau emakumerekin. Erakutsi nahi duguna da, badela beste bizitza bat, emakumeok aukeratu dezakegula, ama edo emazte noiz izan gure esku dagoela.

Bertako lau emakumeen aukeraketa nola izan da?

Inork ez zuen horrelako espedizio batean parte hartu nahi. Familiak ez zien parte hartzen uzten, eta euren artean ere ez dago ondo ikusia emakumeek horrelako zerbait egitea. Ez da erraza izan. Beraiekin 7.000 metroko mendi bat igotzea da ideia. Saipal izena du mendiak eta eskualde horretan dagoen mendirik altuenetarikoa da. Erronka hori gaingiduta inguruko herrietako biztanleei erakutsi nahi diegu emakumeek ere, nahi badute, eskalatu dezaketela. Euren sinesmenek diotenez, jainkoak bizi dira mendi haietan,

eta emakumeek ezin dute haietara igo hilerokoa etortzen zaienean purutasuna galtzen dutelako. Mendira igotzen badira herriari eta familiari zorte txarra ekarriko diotenaren ustea dute. Pentsatzen dugu gure espedizioa pauso txiki bat izango dela, hortik aurrera pixkana urrats gehiago emateko.

Nolabait bertako emakumeen kontzientzian edo eragitea bilatzen duzue.

Nahiko genuke hango emakumeak konturatzea zer edo zer egin daitekeela, ohitura horiek apurtu eta erabakiak har ditzaketela. Proiektuaren bukaran dokumental bat egingo dugu, eta horrela, hango egoera erakutsiko dugu hona etortzen garenean. Izan ere, Nepaleko zonalde hori ezezaguna da, eta horrela, egoera erakustez gain, ingurunea ezagutaraziko dugu. Zonaldea turismoari irekitzea da

idea, trekkingak eta, inguru horretan ere antolatzea da asmoa, eta espedizioan parte hartuko duten emakume horiek beraien trekking agentzia txikia ireki eta kudeatzea.

Zuk ederki ezagutzen duzu Nepal. Urteak dira bertako lurrak lehen aldiz zapaldu zenituenetik.

Bai, urte asko. 1998an joan nintzen lehen aldiz. Uste nuen guztia ezagutzen nuela eta asko ikusi nuela bertan, baina, konturatu naiz oraindik ere asko dudala ezagutzeko eta ikasteko. Zortzimilakoak egiten eta mendiak eskalatzen ibili garenean ezagunagoak diren bailaratan izan gara, eta denborarekin ikusi dugu badirela hainbat zonalde egoera kezkagarrian daudenak.

Bailara horiek, mendiek, bertako jendeak... harrapatu zintuztela kontatzen duzu.

Gehien bat bertako jendeak. Lehen aldiz joan nintzenean 24 urteko neska gazte bat nintzen. Himalaian hasten ari nintzen, inork ez ninduen ezagutzen, ez han eta ez hemen, eta lehenengo unetik bertako herritarrek harrapatu egin ninduten. Beraien etxeak ireki zizkidaten eta ikusi nuen daukaten gutxi hori ematen dizutela. Ordutik, nire bigarren etxea dela esaten dut, hango jendeak beste mundu bat ireki baitzidan. Egia da bertako mendiak ikusgarriak direla, baina handik itzultzean jendeak bertako herritarrek nabarmentzen ditu.

Noiz izan zara azkenekoz?

2011. urtean egin genuen azken espe-

dizio handia, eta ordutik beste mendi batzuetan izan naiz bertan eta baita nire fundazioagatik ere. Hurrei hezkuntzarekin laguntzen dien fundazioa sortu nuen han, eta arrazoi horrengatik askotan izan naiz. Nepalekiko lotura hori ez dut galdu.

Zein da fundazioaren egitekoa?

Bertako gaztetxoekin egiten dugu lan. Aukerarik ez duten gazteek ikasketak izan ditzaten egiten dugu lan. Katmandun eskola bat daukagu, eta une honetan 100 haur daude bertan. Haur horietako asko mendietan dauden herri txikiakotakoak izaten dira. Ikasketak edukitzeko ez dute aukerarik izaten eta fundazioaren bitartez unibertsitatera bitarteko ikasketak izatea lortzen dugu. Hezkuntzaren bitartez eta txikitatik, hori da gure ustez, horrelako herrialde bati laguntzeko erarik onena.

Nondik sortu zen fundazioa sortzearen ideia?

Nik banuen zor moduko bat herrialde honekin eta bertako jendearekin. Lehenengo unetik etxean bezala sentitu naiz han, eta bertako jendeak asko lagundu dit. Nik beti esaten dut, hamalau zortzimilakoak ezin izango nituela egin nire taldea alboan izan ez banu, Asier, Ferran eta gainerako taldekideak izango ez banitu. Baina, nepaldarren laguntza gabe ere ezinezkoa izango litzateke. Zor bat bazegoen beraz, eta ni eta beste mendizale batzuk fundazioaren ideia garatzen hasi ginen. Pixkanaka ari gara lanean, pauso txikiak ematen, ahal dugun neurrian laguntzen.

Murgildu zaren proiektura itzuliz, azaro hasiera jarri duzue espedizioaren itzulera eguna.

Azaroaren 9an bueltatu nahi dut. Gaur egun ez nago lehengo egoera berean, eta gehiago kostatzen zait horrelako proiektuei ekitea. Lehen, berriz, bi hilabete etxetik kanpo egotea ez zitzaidan hain zaila egiten.

Zure egoera pertsonala aldatu egin delako.

Bai. 18 hilabeteko semetxo bat daukat, eta lehenengo aldia da hainbeste denbora igaroko dudana bera gabe, eta hain urrun, gainera. Beraz, ez dakit nola sentituko naizen ere. Askok bidaiatzen dut, eta askotan egokitzen zait 3-4 egun etxetik kanpo egotea, baina, kasu honetan, beldur pixka batekin noa. Nepalen, gainera, hainbeste



haur topatzen dituzu, ziur semearekin oroitu naitzela. Hilabete bat igarotzea espero dut, baina, ikusiko dugu espedizioa nola doan. Azkenean gerta daiteke egun batzuk mugitzea itzulerako data.

Zu iristerako Nepalen entrenatzen aritu dira lau emakumeak, ezta?

Bi hilabetez edo aritu dira entrenatzen. Emakume hauek ez dira mendizaleak, ez dituzte inoiz kranpoi batzuk jarri, ez dakite zer den rapelatzea, eskaladako materiala ez dute ezagutzen, eta sherpa talde batekin egon dira ikasten. Hori bai, altuerara ohituta daude, eta hori oso garrantzitsua da, ez dutelako egokitu beharrik izango. 19-26 urte bitarteko lau neska dira,

gazteak. Tira, gazteak guretzat, izan ere, 45 urte arteko bizi itxaropena dute han, beraz, haientzat ez dira hain gazteak. Beraz, ikusteko dago nola moldatzen diren. Normalean nepaldarrak oso gogorrak dira, baldintza gogorretara ohituta baitaude. Baina, gisa honetako mendi bat igotzea ez da erraza. **Aukeratu duzuen gailurrak ere badu esanahirik.**

Agian, gisa honetako proiektu bat egiteko mendi errazago bat aukeratu genezake, baina, ez genuen hori nahi. Gailur hori eskualde horretan garrantzitsua da. 7.000 metroko garaiera du, eta nire ustez pauso edo aldaketa sozial bat ematea helburu duen proiektu batean erronka handi bat gainditzea



esanguratsua izan daiteke. Mendiak goera desberdinak baditu, eta nondik igo aztertzen egon garen arren geure zalantzak ditugu. B kanpalekura iristean argitu ditugu. Historian lau aldiz baino ez dira igo tontor horretara, beraz, ez dugu erreferentzia handirik. Badakigu frantziar batzuk igo zutela, eta jarri gara beraiekin harremanetan informazioa eskatzeko. Baina, ez dugu gehiegirik. Han argituko ditugu gure zalantzak, eta emakumeek mendian esperientziarik izan ez arren, badakit gaindituko dutela erronka. Gogotsu daude eta sendoak dira. Beraiek oso argi dute zergatik ari diren parte hartzen, eta indar horrek lagunduko die aurrera egiten.

Nolako oihartzuna izango du han guzti honek?

Badakit bertako turismo bulegoak ados daudela espedizioarekin, eta bertako hainbat herritarren babes jaso dugu, baita gobernuaren onarpena ere. Orain ikusteko dago gizarteak nola erantzuten duen. B kanpalekura iritsi bitarte trekkinga egiten egongo gara bailarako herrietan, eta ziur kontrako eta aldeko jarrerekin egingo dugula topo. Beste bailara batzuetan, Everestara joaten direnean edo Makalura esaterako, herritarrak ohituta daude espedizioekin. Hemen, ordea, espediziorik ez da ia egiten, eta bertako lau emakumerekin, gainera. Oihartzuna, beraz, izango duela iruditzen

«Badela beste modu bat, badela beste bizitza bat ikusarazi nahi dugu. Emakumeok aukeratu dezakegula erakutsi nahi dugu espedizio honen bitartez, ama edo emazte noiz izan gure esku dagoela».

zait. Ea, beraz, espero dugun adinakoa izaten den.

Azaro hasiera jarri duzu itzulerako data. Emaizta noiz izango da ikusgai?

Material guztia ekarri, eta hiru hilabeteren buruan zerbait izatea da nahia eta asmoa. Martxorako edo dokumentala prest izatea aurreikusten dugu. Gidoi batekin goaz hara, han material guztia jaso, eta gero hori dena muntatu beharra dago. Dokumentala mendi jaialdietara eramatea ari gara pentsatzen, baina, hori guztia materiala daukagunean ikusi beharko dugu. Espedizioarekin hasi aurretik ari gara irudiak hartzen. Emakumeen egunerokoaz, euren bizimoduaz, inguruneaz... Eta, orain arte jasotako irudiekin oso gustura gaude. Gaiak indar handia du, baina, dokumental batean aurkeztea ez da hain erraza. Gero hizkuntzaren muga ere hor dago, itzultzaileen bitartez komunikatu beharra baitaukagu beraiekin. Agian, elkar ulertuta errazagoa izango litzateke eurengana gehiago gerturatzea. Hori bai, oso ausratak eta jatorrak dira, eta ziur asko ikasiko dugula elkarrengandik.

Nepaleko emakumeen egoera salatzea eta bertako emakumeengan kontzientzia piztea da proiektu honen helburu nagusia. Hamalau zortzimilakoak igotzen lehen emakumea zara. Badakizu zer den emakumeentzat 'ezohiko' den ingurunean aritzea.

Gure mundua mutilen edo gizonen mundu bat izan da, beraz, emakumeentzat ez da izan erraza. Hasten zaren, kontuan hartua izateko, gehiago erakutsi behar izaten duzu, nolabait gai zarela frogatu behar duzu. Nire kasuan, mutil talde batekin espediziora joaten zen neska gazte bat nintzen, eta emakume izateagatik hainbat gauzei aurre egitea egokitzen zaizu. Maiz gertatu izan zait esertzea eta nire buruari esatea egiteko gai naizela. Pentsa, niri hori gertatu bazait Nepaleko zonalde honetako emakumeentzat are eta zailagoa da egoera.

Emakume izateari ama izatea gehitzen badiogu?

Hangotarrek ikusiko dute nire adineko emakume bat tamaina horretako mendi bat igotzen. Eta, gainera, ama dena, eta bere haur txikia etxean utzita hori guztia egin duena. Eta, hori, berak aukeratuta. Berak aukeratuta umea





izatea, 45 urterekin 18 hilabeteko seme bat izatea, norekin edukitzea, mendira igotzea edota lan egitea. Berak aukeratu duela nolako bizitza izan nahi duen. Uste dut horrek guztiak asko harrituko dituela hangotarrak, eta zer pentsatua emango diela.

Zure kasuan, ama izateko aukera ez da hain erraza izan.

Orain inoiz baino argiago ikusten dut. 31-32 urte nituenean krisi modukoa izan nuen. Kirola egiten ari nintzen, zortzimilakoak egiten, gustura, baina, ama izan nahi nuen. Nire barruan borroka moduko bat hasi zen. Gainera, gizarteak adin batetik aurrera eskatu egiten dizula dirudi, orduan dela une egokiena pentsarazi arte. Azkenean, hor barruan daramazun kontu bat da, eta gainera, ezin duzu luzatu, emakumeok muga bat izaten baitugu seme-alabak izateko. Krisi hori izan nuen, eta aukeratu beharra izan nuen, edo mendiak eskalatzen jarraitu edo ama izan. Nire ingurukoek ulertu zuten, baina, nireztat gogorra izan zen aukeratu beharra. Orain ama naizela ditudan sentsazioekin konturatzen naiz zer den ama izatea. Orain Nepalen eta gisa honetako espedizio bat egitera noan honetan konturatzen naiz zer den. Ez da lehengo egoera bera, eta le-

hen ez bezala, orain badakit nire burua ez dudala lehen bezain beste arriskuan jarriko. Gauzak argi ikusten ez baditut ez dut aurrera jarraituko, eta horrela lasaiago geratuko naiz. Lehen, ordea, ez nuen izango atzera botatzen ninduen sentimendu hori.

Ez duzu lehen adina arriskatuko, beraz.

Ez, hori ziur. Lehen hamalau zortzimilakoak egiteko lasterketa moduko baten barruan ari ginen lehiatzen. Egin beharra zegoen, eta burutu arte ez zegoen amaierarik, ezin zen etsi. Orain, berriz, askoz ere lasaiago hartzen duzu dena. Orain konturatu naiz ezin izango nukeela haur bat izan, ama izan eta hamalau zortzimilakoak eskalatzen egon. Aukera, esan bezala, oso zaila izan zen, baina, uste dut horrela izan behar zuela. Nik aukera hori egin nuen, eta pentsatu nuen ama izateko denbora izango nuela gero ere. Mundu honetan guztiak egiteko dago denbora bai, baina, ama izatearena ezin da gehiegi luzatu edo atzeratu. Geroz eta gehiago atzeratu orduan eta gehiago murrizten dira ama izateko aukerak. Dena den, esango nuke horretan ere desinformazio handia dagoela, eta uste oker asko. Egia da adin batetik aurrera nekezagoa izan daitekeela, bai-

na, 40 urteren bueltan ama izatea posible da.

Ama izateak beste ikuspegi bat emango dizu horrelako proiektuak aurrera eramateko, ezta?

Bai. Izan ere, nik nire kirola eta mendia, eta mendiarekiko harremanarekin jarraitu nahi dut, baina, agian, beste alor edo ikuspegi batetik. Eta, egia esan, nireztat ez da esfortzu handia izan hori egitea, hau da, ikuspegiz aldatzea. Kirol honetan oso lehiakorrak garela dio jendeak, eta arrazoi izan dezake, baina, nik orain askoz ere era lasaiagoan hartzen dut dena. Nepalen burutuko dugun espedizioan, adibidez, oso argi dut edozein arrazoirengatik tontorra igotzea ez badugu lortzen ez naizela lehen bezala arduratuko. Ez da ezer gertatzen. Igotzen bagara primeran, eta igotzerik lortzen ez badugu, aurrera egingo dugu. Emakume batzuekin espedizio bat egitea da asmoa. Ahal den neurrian gure puntu-txoa jarriko dugu han, emakume horiengan zerbait sortzea da asmoa, eragitea, trekking agentzia irekitzea eta zonaldea pixka bat mundura zabaltzea positiboak litzateke. Beraz, ea datozen urteetan zonalde hori eta bertako emakumeen egoera ezagutaraztea lortzen dugun.



‘The guardians of’ proiektua

Tolosaldea LHII, beste lau herrialderekin batera proiektu komun bat osatzen ari da. Herrialde horiek Polonia, Grezia, Portugal eta Italia direlarik, *The guardians of Europe* proiektuak gaur egungo ikastetxeetan garrantzia hartzen ari diren zenbait gai sozial lantzea eta Europako herrialde ezberdinetan, arazoa sortzean aplikatu ohi diren irtenbideak zabaltzea du helburu nagusi. Proiektu honek bi urteko iraupena izango du eta Europako kultur ondarearen omenez antolatua izan da.

Proiektu honen barruan, gure ikastetxeak Berdintasunaren alorra landu beharko du, baina ez gizon eta emakumeen berdintasuna bere horretan, baizik eta, ziklo industrialetan emakumeen parte hartzea bultzatzea landuko da ikastetxeko ziko guztietan. Gai nontzeko herrialdeei ere izendatu zaizkie dagozkien gai sozialak: greziarrak adibidez ariketa fisikoa landuko dute bere ikastetxeetan; italiarrek berriaz, elikadura osasuntsua; portugaldarrek tolerantzia eta poloniarrek ciberebullying-a.

Guzti honi hasiera emateko ordea irudi bat behar zela ondorioztatu zuten taldea osatzen duten 20 irakasleek eta horregatik parte hartzen duten ikastetxe guztietako ikasleok logo lehiaketa orokor batean parte hartzeko aukera izan genuen. Bertan, batzuk klase orduetan lan eginda eta gainontzekoek eskolaz kanpoko orduak aprobetxatuz beraien logoa aurkeztu zuten. Gurean bere logoa aurkeztu nahi izan zuten ikasle guztien artean bi izan ziren aukeratuak, administrazio zikloko Oihana Agirreurreta eta Asier Muñoarenak, hain zuzen ere. Bi logo hauek asteartean Palermonean egin zen Logo Lehiaketa Orokorrera aurkeztu ziren eta bertan, Oihana Agirreurreta



Oihana Agirreurreta alegiarrak egin du logoa, eta ‘The Guardians of Europe’ lehiaketa irabazi du.



Lehiaketan parte hartu duen bestea, Asier Muñoa izan da.

alegiarraren logoa izan zen gainontzeko ikastetxe guztietako logo guztien gainera irabazle. Hargatik, gaurtik aurrera logo hori ikusi ahal izango dugu *The Guardians of Europe* proiektuaren inguruko ekintza, propaganda eta ekitaldi ezberdinetan. Zorionak Asierri eta nola ez, Oihanari.

Beraz, gaurtik Aurrera Tolosaldea Lanbide Heziketako ikastetxeak

proiektu berri bezain interesgarri bat izango du eskuartean bertako ikasleokin landu ahal izateko eta ziur izango duzuela proiektu honen berri zuek ere hurrengo artikuluko eta albisteetan.

**IMANOL IRAZUSTABARRENA
GARMENDIA**
GOI MAILAKO ADMINISTRAZIOA
ETA FINANTZAK

Prest?

Belarriak zutitu lagunok, adi egon, ate joka da Euskaraldia. Garai batean belarrimotz esaten zitzaien haiek gaur belarriprest dira, batzuk behintzat, belarri bat emateko prest daude, desiratzen, gure euskarari belarria, ahoa, hatsa eta ahotza emateko, ahobizirik biziena ere aho bete hortz uzteko, euskarara hurbildu eta aho txikiarekin bada ere, belarrien hegale-
 ra esateko, «Nik ere euskaraz bizi nahi dut».

Eta ahobiziak ere prest dira, buru belarri euskaraz jarduteko, ahobero-keriarik gabe baina ahobetez, hitzetik hortzera, ahotik ahora, aholkuak alde batera utzita, ahots gora, euskarari aho-soinu gozo hori ateratzeko, gure hizkuntzak ahotik ahorako arnasketarik behar izan ez dezan, aho bizarrik gabe esateko, «Nik ere euskaraz bizi nahi dut».

Eta belarriprestak ahobiziari, «nik ez dakit ondo ahoskatzen s-z-rik», eta ahobiziak belarriprestari, «ba ni belarriluzea naiz baina ez daukat zuk adinako meriturik». Eta belarria jartzen, belarria egiten, «Egun on» eta «Eske-
 rrik asko» esatetik esaldi gero eta luze-agoak ahoskatzera, «Mayor Oreja»-ren hizkuntzatik, senperrenak ikusi arren, Senperrek ere bere egin duen hizkuntzara jauzi egitera animatuko dira batzu-batzuk, hitzari belarria emanez, eta gero eta adore handiagoz ausartuko dira esatera, «Nik ere euskaraz bizi nahi dut».

Eta ahobizi batek besteari, «ai, euskara ahotan hartzen duten horiek ahora eramango balute beti!» eta belarriprest batek besteari «gaur euskaraz ari zaizkidanak ariko balitzaizkit beti!». Eta ahobiziak hitzetik hortzera gaztelania darabilen euskaldun zaharrari, «ai, buruz belarri egiten duten horiek, ez entzunarena egiteari utzi eta jarriko baliote belarria euskarari!». Eta belarriprestak ahobiziari «ai, Euskaraldiak iraungo balu beti!». Eta ahobiziak ahobiziari «ai euskarak ez balu beharko Euskaraldiari!». Izan ere, orduan ez genuke «Nik ere euskaraz bizi nahi dut» esan beharrik, orduan «Euskaraz bizi naiz» esatearekin aski.



RAMON OLASAGASTI
AIESTARAN
 KAZETARIA ETA
 IRAKASLEA

«Ai, bizinahiak beti bizia balekarki!» esango zukeen Lizardik ahobizi, eta atzetik Sekubelardiko kantariak abestuko ziokeen jostari «gure hitzak esan berriz esan, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal». Eta Maialen Lujanbiok erantzun barru-barrutik, «Herri hau sortzen segi dezagun, euskaratik eta euskaraz».

Eta Arestik ozenki, Bilbo-ko eta Euskal Herriko belarriprest eta ahobizi guztiei, «nire poesia oso merkea da, herriaren ahotik hartu nuen debalde, eta debalde ematen diot herriaren belarriari».

Arestiren olerkia bezain merkea eta xumea baita Euskaraldiaren mezua bera ere: har dezagun euskara herriaren ahotik eta eman diezaio-
 gun herriaren belarriari.

Prest?

**Har dezagun
 euskara herriaren
 ahotik eta
 eman diezaio-
 gun herriaren belarriari**

Agenda

OSTIRALA URRIAK 26

AMASA-VILLABONA IPUINKONTAKETA

18:00. *Musika Galduren Bila*, ipuin kontaketa. Haurrentzako antzezlanaren aktore batek marrazki bizidunekin jokatzeko duen, Gurean antzokian, doan.

ALEGIA

ODOLEEMATEA

18:30–20:30. *Odola ematea* bizitza ematea dalelopean dei egiten dieten herritar guztiei kultur etxera joateko.

ADUNA

MUSIKA

20:30. 50. Tolosako Abesbatza Lehiaketan aurkeztuko duten lanaren entzunaldi irekia. Landarbaso abesbatzaren eskutik, elizan.

ASTEASU

BILERA

19:00. Indarkeria matxistaren gaineko lanketa abiatuko dute, udaletxean, Arremanitz kooperatibak gidatuta.

BERASTEGI

KULTURASTEAK

16:00. Merienda Guraso Elkartearen eskutik, eskola atarian.

16:30. Bizikleta, patin eta patinete ginkanak eta sorpresa.

19:00. *Itzalitako kalabazaren berpiztea: Gau Beltzaren ospakizunak Euskal Herrian* hitzaldia, Jaime Altuna antropologoaren eskutik.

ORENDAIN

KONTSUMO JASANGARRIAZ

18:00. Orendain arduraz kontsumitzen duen herria egitasmoa martxan du udalak, herritarren artean kontsumo jasangarria sustatzeko. Herritarren zalantzak argitzeko saioa izango da., udaletxean.

OREXA

KULTURASTEAK

22:00. *Sexjentziak* askatuz antzezlanaren Bazen Behin Clownen eskutik.

TOLOSA

LARRAMENDIKO FESTAK

17:00. Txokolate jatea.

18:30. Txupinazoa, TAkeko nesken



ZALETU, GAZTEEN AUTONOMIA LANTZEKO PROIEKTUA

16 eta 18 urte arteko gazteen autonomia lantzeko proiektu pilotua da Zaletu. Tolosa, Ibarra eta Amezketan jarriko dute martxan, eta larunbat honetan abiatuko dute Tolosan egingo den festa batekin. Tolosako kultur etxeko areto nagusian, 19:00etatik 21:00etara izango da *Zaletu fest!* pintxo eta DJekin. MIKEL IRAOLA

eskutik izango da, buruhandiak eta dultzaineroekin.

19:00. Pintxo–potea.

20:00. Tolosako bandaren kontzertua.

22:00. Zezen suzkoa.

23:00. 80. eta 90. hamarkadako DJ festa, mozorrotuta.

OLARRAIN AUZKO FESTAK

22:00. Mus Txapelketa.

MUSIKA

22:30. Eraso eta Niketz taldeak Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

LARUNBATA URRIAK 27

AMASA-VILLABONA

BISITA GIDATUA

10:30. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Aljibea eta emakume estanpatzaileak bisita gidatua egingo dute.

ALTZO

ANTZERKIA

Gure haundiaren ibilerak antzezlanaren egingo dute herritarrek. Altzo Azpiko errotatik abiatuko da, Altzo Muinoko plazan amaitzeko.

15:30. Altzoko plazatik, oinez, Altzo Azpira abiatuko dira.

ANOETA

URRIFEST

18:00. Euskal Herriko bost garagardo (Basquenland, Brew&Roll, Gross, Olañeta

eta Eteko Bob's Beer) dastatzeko aukera egongo da, Zimiterioan.

21:30. Txili Pipar taldearen kontzertua, Red Hot Chili Peppers taldearen bertsioak egiten dituzte. Afaltzeko aukera egongo da.

BERASTEGI

KULTURASTEAK

15:00. Mus txapelketa herrikoia, Ategin.

17:00. *Animaliak Mintzo Ziren Garaietan* ipuin kontaketa Marta Alzateren eskutik, kultura solairuko erabilera anitzeko gelan.

19:00. Pintxo–potea.

23:00. Musika–iluntzea Bi Zaldi eta Estarlus taldeen eskutik, Urepele elkartean.

OREXA

KULTURASTEAK

16:30. Haurrentzat merienda.

17:00. Haurrentzat film emanaldia: *Nur eta Herensuguearen Tenplua*.

22:00. *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala.

IBARRA

BILERA

17:00. Ibarako Gazte Asanbladak eraso sexisten aurkako protokoloaren lanketa kultur etxean. Parte hartzeko deia egin die herritarrei.

IRURA

MOTORZALEEN BILKURA

Lasarte–Orian egoitza duen Loquillo Riders elkarteak antolatu du egun osoko festa.

09:30. Akreditazioak banatuko dira Ametsa trinketean.

10:30. Moto ibilaldia.

13:30. Cheyenne aretoan geldialdia.

Ondoren. Herri bazkaria frontoian.

TOLOSA

TOLOSA GOXUA AZOKA

09:00–14:00. Azoka berezia.

09:30–10:30. Tartak aurkezteko epea.

10:00–12:15. Gozogileak ikasleekin elkartuko dira, eta sugar tarta prestatzeari ekingo diote.

10:30–11:30. Epaimahaia tartak dastatuko ditu.

11:45. Sari banaketa

12:15. Pasteltxo banatzea.

12:15. Tolosa Kantari.

LARRAMENDIKO FESTAK

10:00. Diana dultzaineroen eskutik.

12:00. Gaztetxoan danborrada txarangarekin.

14:00. Auzo bazkaria.

16:30. Jokoak, txarangak alaituta.

18:00. Kalejira, Iraunkorak txarangarekin.

20:00. Alaiki Metal, haurrentzat.

23:00. Alaiki Metal.

ONDAREARENEUROPAKO JARDUNALDIAK

17:00. Bisita gidatua emakumeen ikuspuntutik, Topic zentroan.

18:30. Loops antzezpena, Topic zentroan.

MUSIKA

19:00. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak, KEA Ahots Taldea eta Tolosako Ekinbide Etxearekin elkarlanean entsegu irekia eta kontzertu bat antolatzen du, The Rose Ensemble-ko zuzendari den Jordan Sramekekin, Jesuitinen elizan.

OLARRAINAUZOKO FESTAK

21:00. Auzo afaria, trikitilariak alaiturik.

MUSIKA

22:30. Hell Beer Boys eta Orreaga 778 taldeek kontzertua eskainiko dute, Bonberenean. Sarrera: 6 euro.

IGANDEA URRIAK 28

ASTEASU

KULTURA ANITZEN JAIALDIA

12:00. Jatorri ezberdinetako herritarrek beren kulturaren zati bat erakutsiko dute, eta postuez gain musika ere izango da, Usarabi frontoian.

BALIARRAIN

EUSKARALDIA

12:00. Ttak Beatriz Egizabelen bakarriketa izango da, Euskaraldiaren barruan, balio anitzeko gelan.

Ondoren. Elkartean pintxoak izango dira, eta Euskaraldian izena eman nahi duenarentzat aukera izango da.

BELAUNTZA

AZOKA

10:00–14:30. Herriko postu ezberdinak egongo dira jarrita plaza inguruan eta frontoian. 11:30ean, hamaiketako izango da Ostatuan.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

12:00. Organo kontzertua Myriam Ulanga organo-jotzailearen eskutik, San Martin Toursekoaren elizan.

17:00. Kalean Otso, Etxean Usa: Antzerki emanaldia haurrentzat, Patata Tropikala taldearen eskutik, erabileran anitzeko gelan.

ORENDAIN

KONTSUMO JASANGARRIAZ

12:00. Orendain arduraz kontsumitzen duen herria egitasmoa martxan du udalak, herritarren artean kontsumo jasangarria sustatzeko. Herritarren zalantzak argitzeko saioa izango da., udaletxean.

TOLOSA

OLARRAINAUZOKO FESTAK

09:30. XXX. Abraham Olano Mendi Bizikleta Trabiesa Herrikoa, Peña Olanok antolatuta.

11:00. Hamaiketako eta haur jolasak.

14:30. Bazkaria bertsolari eta trikitilariekin alaituta.

LARRAMENDIKO FESTAK

10:00. Diana txistularien eskutik.

11:00. Patata tortila lehiaketa.

12:00. Gaztetxoan jolasak.

14:00. Kuadrila bazkaria (kuadrila bakoitzak ekarri beharrekoa)

15:30. Batukada tailerra.

17:00. Buruhandiak.

19:00. Jai amaiera.

SANBLAS ETXEAREN

INAUGURAZIOA

12:00. Musika, pintxoak eta proiektuaren aurkezpena.

14:00. Bazkaria.

16:00. Lur eta Endika kantautoreak.

ZINEMA

LA FABRICA DE NADA

Ostirala (21:30). Zine foruma. Jatorrizko bertsioan.

Leidor, Tolosa.



UN PEQUEÑO FAVOR

Larunbata (22:30). Igandea (19:30 eta 22:00).

Leidor, Tolosa.



LOS FUTBOLISIMOS

Igandea (17:00). Haur zinema.

Leidor, Tolosa.



CARMEN Y LOLA

Larunbata (19:30). Astelehena (20:30).

Ikuslearen eguna.

Leidor, Tolosa.



OREINA

Larunbata (19:30 eta 22:00). Igandea (19:30).

Astelehena (21:00).

Ikuslearen eguna.

Gurea, Amasa-Villabona.



LUIS ETA

ESTRALURTARRAK

Igandea (17:00). Haur zinema, euskaraz.

Gurea, Amasa-Villabona.



ASTELEHENA URRIAK 29

IKAZTEGIETA

BILERA

18:00. Kultura Batzordeak bilera egingo du neguko kultur eskaintza antolatzeko, udaletxean.

Euskaldun gazte,
ajolakabe



BEÑAT SALBARREDI

*Euskaraldia antolatzeak
nigan sortu du galdera
jende ugari sartu den arren
hizkuntza hau ikastera
erabilerak jende artean
ez al du egin atzera?
Entzun nahi bada erdera
joan gazteen artera (bis)
euskaldun gazte, ajolakabe
erderaz hasten bazera
zu isiltzeak euskara ahuldu
lezake lehenaz gainera (bis)*



Doinua

Leiho ertzetik
entzun dezaket

28 herriei gutuna

Hogeita bat egun, hogeita bat egun behar dira edo hori diote adituek, behintzat, ohitura berri bat zeureganatzeko, zeure eguneroko bizitzan normalitate osoz ikusteko. Bada... pasa da jada 21 egun horien muga, birritan gainera, azken aldiz tolete, estrobo, tosta edo Enbata ontzia ukitu genituela eta aitortu beharra daukat, nigan ez da sofan egoteko edota eskuak xuabe eta lirain ikusteko ohiturarik garatu. Bada marka, e!

Zerbaitetarako baliagarri izan badira berrogeita zazpi egun luze hauek, buruak ia onartu ezin zituen sentimendu, emozio eta harridura olatuak baretzeko balio izan dute. Onartzeko eta sinesteko ez dela amets bat izan, irudipena izan, errealitatea baizik.

Askok jada ulertuko zenuten nire hitzen zergatia. Bai, Tolosaldeko traineruaz mintzo naiz; baina, ez soilik, teknikaz, arraunketaz, Kontxaz edota lortutako banderaz, egun haietan sentiarazi zenigutenaz baizik. Kontxa

bezperan zabaldu arazi genuen mezu batean, goxotasuna, indarra, arnasa zinetela esan genizuen, eta halaxe izan da. Goxotasuna izan zarette momentu hotzenetan, indarra ahulenetan, ilusioa eta konfiantza guk geuk ere geure buruan sinesten ez genuenean...

Esker hitzak, esker hitzak gaurkoan zuentzat, erronka berri honetako zutabe garrantzitsuenetako bat zaretelako, arranpa berezi hori urdintzeagatik, gugan sinesteagatik,

bidai berri honetan bide beretik etortzeagatik, eta nola ez, itsasoa ikusten ere ez den etxeetatik, erre-kako arraunlari gazte eta ero hauen-gan sinesteagatik. Neguan lana gogor egitea eta gozatuz zuek gozaraztea soilik geratzen zaigu.

Herrietatik eta nola ez, hau dena herrientzat, zuentzat!

28 herri... bada marka, e! 28 herriren bultzada, pentsa...! Mila milioi esker, Tolosaldea, ez duzue parekorik, bejondeizuela!



MALEN OIARTZABAL
IKASLEA

**Goxotasuna izan
zarete momentu
hotzenetan, indarra
ahulenetan, ilusioa
eta konfiantza guk
geuk ere geure buruan
sinesten ez genuenean...**

KOMIKIA NAIARA DELGADO PEREZ



Euskarazko produktuen kontsumoaz

Euskal Herriak 3.000.000 herritar ditu *grosso modo*. Horietatik, 800.000 gara elebidunak, euskara eta gaztelania edo/eta frantsesa dakigunak. 40.000 herritar gara euskarazko produktuak (egunkariak, aldizkariak, telebista, irratia, musika kontzertuak, literatura...) modu iraunkorrean kontsumitzen ditugunak. Euskararen gotorlekua, zutabe sendoa, 40.000 lagunek osatzen dugu. Euskal herritarren %1,3 gara, euskararen bihotza. 800.000 euskaldun horietatik %5 alegia.

160.000 lagun gehiagok euskarazko produktuak aldi behin kontsumitzen ditu (urtean euskarazko libururen bat, aldi behin euskarazko telebista ikusi...). Euskal herritarren %5,3 eta euskaldunen %22.

Datuak eskasak dira zalantzarik gabe, baina badute gauza on bat: hobetzeko tarte ikaragarria daukagu. 2.200.000 lagun euskaldun ditzakegu, nahi badute eta baldintza egokiak jartzen baditu administrazioak, eta horren aldeko olatu erakargarria sor-

tuz gero. 160.000 euskaldun kontsumitzaile eskas euskarazko produktuak erabiltzen edo kontsumitzen jar ditzakegu, konbentzitzuz gero eta gutuko produktuak ere eskaintzen badizkiegu; horrela, asko handituko genuke euskararen gotorlekua, oso garrantzitsua dena, bide batez esanda.

Produktu txarrak ez ditugu, baina hainbat lagunentzat edo ez dute behar adinako erakargarritasunik, edota utziak dira eta ez dute euskarazko produkturik nahi eta behar. Gustura bizi dira espainolezko/frantsesezko produktuak erabiliaz.

Produktuak herritar askoren gustuetara egokitzea izan liteke egin beharretako bat, produktu berriak sortzea beste bat, edo literatura «arinagoa»

egitea. Aipatutako produktu guztien propaganda handia egin behar da, 3.000.000 euskal herritarrek kontura daitezen euskarazko produktuak izan badirela batetik, eta bestetik, produktuak prestigiatzeko. Administrazioak eta produktuen industriak zein sortzaileek zeresan handia dute aipatu berri dudana horretan guztian.



**IÑAKI AZALDEGI
ARRIETA**
OINEZKOA

Euskaraldia datorkigu udazkenean. Aukera polita izan daiteke, panorama ilun honi buelta ematen hasteko. Horretaz gain, euskarazko kulturaren legea egitea beharrezkoa izango da. Legeak berez ez du hobekuntzarik ekarriko, baina legerik gabe ezinezkoa izango da salto kualitatiborik ematea. Bestalde, Euskararen Legea 1982koa da eta egokitu beharra dago 2018tik aurrerako gure egoerara, modu ausartagoan normalizazioari heltzekotan.

Beno, badagoela zeregina alegia. Ea Euskaraldia den arestian aipatutako eta beste eginbeharren hasierako gunea, elkarlanari behingoz modu eraginkorrean ekiteko!

**Euskararen Legea
1982koa da eta egokitu
beharra dago 2018tik
aurrerako gure egoerara,
modu ausartagoan
normalizazioari
heltzekotan**

EGURALDIA



OSTIRALA

Aldaketa eguna. Goizetik jada hodei ugari zeruan. Gehienbat erdi eta goi-mailako hodeiak, baina zerua nahiko estalia utziko dute. Egurditik aurrera mendebaldetik geroz eta hodei trinkoagoak sartzen joango dira eta arratsalde erditik aurrera euritara joko du. Gau parterako zaparrada ugari eta tarteka handiak. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura: 17-18º eguerdian. Arratsaldean nabarmen hoztuko du.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Negu giroa bueltan. Egun hotz eta euritsua. Ipar-mendebaldeko haize zarakarra nagusituko zaigu eta horrekin eta erdi eta goi-mailako geruzetan oso aire hotza. Goizean 10-11 gradu harapatuko ditu gehienez eta arratsaldean zehar hozten joango da. Zerua ia erabat estalirik agertuko da eta euria erruz egingo du, batez ere, arratsaldean. Tenperatura hauekin elur mailak behera egin eta arratsalde partean 1000 metrotan egongo da, eguna bukatzerako 700-800 metrotara jaitsiz.

IGANDEA

Negu bete-beteko giroa. Egun berriz hotza: 7-8 gradu. Ipar haize oso zarakarra ibiliko da eta horrek hotz sententzia areagotuko du. Zerua ez da larunbatean bezain estalirik egongo, beraz zaparrada tartekatukoak eta aterru batzuk. Hala ere, tarteka zaparrada gogorak ekaitz eta guzti. Elur maila goizean 600 metrotan, ekaitz gunitan 500 metrotara jaitsiz. Arratsalde partean zertxobait gora egin eta 700-800 metrotik gora zurituko du.

OSTIRALA
26



IGANDEA
28



LARUNBATA
27



ASTELEHENA
29



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburrak argitaratzeko deitu
943 65 56 95
zenbakira, idatzi
ataria@ataria.eus
helbidera edo pasa
ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak
iragarkilaburrak.eus
webgunean

FARMAZIAK



URRIAK 26, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Etxebeste, J.M. Gernikako
Arbolaren lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

URRIAK 27, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga, M.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
Telefonoa: 943 67 24 38.

URRIAK 28, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

URRIAK 29, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, solasaldi politikoa Garbiñe Biurrun eta Juan Inazio Hartsuagarekin, Tolomendiren tarteak, Alain Rekondoren zinema eta telesail gomendioak eta azken ostirala.
11:00. Hamaiketako. Ibaraldeko berriak Rebeka Calvo kazetariaren eskutik.
12:00. Entzuteko jaioak.
16:00. Zebrabidea.
18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA

12:00. Hauspo artean. Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.
14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.
17:00. Kokondo. Oskar Tenarekin.
21:00. Playback Ataria. Adriana Gaultierrekin.

IGANDEA

10:00. Asteko onena.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearekin eguraldiaren iragarpena, asteburuko errepasoa, Iñaki Zubeldia *kale kantoitik*, Iker Iriarterekin bidaia-iraren tarteak.
11:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondo eta Anoetaldeko berriak, Jon Mirandarekin.
12:00. Entzuteko jaioak.
16:00. Zebrabidea.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. Hauspo artean.


107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
16:30. 1,2,3 Hemen da Miru.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
22:00. Elikatu.
22:30. Ur eta lur.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.



**Gogoratu igandeko
03:00etan 02:00ak
izango direla.
Ez ahaztu ordulariak
atzeratzea.**



Konsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ez ingo da beste eskaintza batzuetan erabil.

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia

**gama altuko 2 mó progresibo
erreflexuen aurkako lenteekin**

229€

www.multiópticasgipuzkoa.com   

*Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira*

San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Bertan Erosiz,
Eman Bizia Herriari!!!



VILLABONAN ETA ZIZURKILEN EROSI ETA ESKURATU TELAZKO POLTSA BAT

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Euskadi, azulana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



**Bertan erosiz eman
bizia Villabona-Zizurkil
herriei!**